



Iturria: *Galtzaundi ta beste bertso asko*, Ramos Azkarate
(Antonio Zavalaren edizioa). Auspoa, 1962.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AzkarateGaltzaundi.htm>

GALTZAUNDI TA BESTE BERTSO ASKO

Ramos Azkarate

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

RAMOS AZKARATE OTAEGUI

Tolosa'n jayo zan, 1847'garren urteko Martxuaren 28'an.

Ain zuzen ere, egun ori Erramu-eguna zan urte artan. Orregatik jarriko zioten *Ramos* izena. Elizako paper-agerietan *Ramon* ipintzen du, bañan kopiatzallearen okerren bat izango da dudarik gabe. Berak beti *Ramos* firmatu baitzun eta danak ere ez baitzioten *Ramos* (edo obeto esateko) *Ramos* beste izenik eman. Gaur ere *Ramos* esaten dute Tolosako zarrak artaz oroitzean.

Bere aita, Meltxor, Arabako Villarreal'goa zan, eta ama, Joakina, Villabona'koa. Zapataria zan. Bere lan-tokia izan zun euskeraz «Plazatxo» ta erderaz «Plaza de la Verdura» esaten zayonean, «N. I» jar-tzen dun arkupean.

Norbaitek esan digu denda txiki bat ere jarri zula azkenean, bañan ez dakigu zein tokitan.

Bere emaztea Isabel Barrena izan zan, Urrestildarra. Seme alabarik izan ote zuten ez dakigu.

Gaztetan liberala izan zan, bañan gero «konbertitu» ta karlista purrukatua biurtu zan. Orra nola dion berak:

*...ni nere Erregien
etsai nintzanian,
nebillen Eliza ta
Fueroen kaltian.
Bañan ikusirikan
zerbait istoriya,
ikasi nuben zerbait
maitatzen egia;
maitatzen Fueroakin
euskaldun erriya,
maitatzen euskera ta
zure familiya.*



Liburu ontako lenengo ta bigarrengo zatia «Tolosako Iñauteriak» ta «Kezketan» izendatu ditugu. Seguru asko, oyetan egongo dira guganaño eldu diran Ramos'en bertsozik zarrenak. Etorri ugariak izan zan beti.

Bi komeri ere asmatu zitun. Bata, «Ijituen kontratuba eta ezkontza» deritzana. Tolosako Plaza Zarrean zurezko agertoki bat altxa ta antxen aurkeztatu omen zan estrañako aldiz, Iñauteri egun batean.

Komeria eman da gero, bazijoan bein Ramos, oitura zun bezela, Ibarre errira pasiatzen. Bañan Zumardi-Aundi'tik barrera igarotzean, ijitu mordo bat arkitu zun. Ayetako bat asi omen zan: «Auxe da, auxe da gure kontra komeriya egin dun». Danak Ramosengana bildu ziran. Ez omen zuten jo, bañan oso larri ibilli omen zan.

Ori zan 1885-garren urtean. Urte artantxe frantzes batzuk Tolosara etorriak ziran elizan organua jartzera. Bolaratxo bat egin zuten lanean. Apirillaren 12-an estrañatu zan organua. Aurreko egunetan n frantzesak organua afinatzen asi omen ziran ta bitartean arotzak Ostegun Santurako monumentoa jartzen. Polita omen zan: frantzesak atzean *¡iii... ¡iii...* organuakin ta Tolosako arotzak aurrean *pim pam pum* malluakin. Frantzesak amorru bizian jarri ziran, orrela ezin zitekeala organorik afinatu.

Komeria bota zan egunean ikasi zuten frantzes oyekek jendea bazijoala norabait eta zerbait izango zala pentsatuz segi egin zioten jendeari. Sartu ziran Plaza Zarrera, asi ziran ijituak eta eskribaua bere lanean, jendea berriz parrez lertu bearrean eta bitartean frantzesak arrituta ta oso seriyo nola ote zitekean jendea orrela parrez ta berak ezer konprenditu gabe.

Beste komeria, «Beotibar'ko Jazarra». Ontan azaltzen dira orduko Tolosarren larriak, Gaon judua, Ama Euskeraren kezka, ta beste gauza asko. Au ere Iñauterietan aurkeztatzeko egiña.

1893 urtean Tolosako karlistak aldizkari edo rebista bat agertzen asi ziran: *El Cántabro*. Donostiko integristak beste bat zuten: *El Fuerista*. Mutur joka ibiltzen ziran beti alkarrekin.

El Cántabro aldizkarian lan asko egin zun Ramosek. Geyen geyenetan, euskerazko zatia bere kontu egoten zan. Askotan etzun bere izena jartzen, izengoitiren bat baizik: Urrengo arte, R. Arranzillun, Ur-zale batec, Gaiñchurisquetac, J. Zabalbidecuac, Iruretan-goyenac, ta abar. Bertsoak eunka ta eunka atera zitun. Noizean bein ipuiren bat ere bai.

Bere lan auetan denbora artako politika guztia ageri da. Politik esaten dizkie Sagasta'ri, Gamazo'ri, Nocedal ta integrista guztiai, *El Fuerista* aldizkariari, Cánovas'i ta bere etsai guztiai.

Aldizkari orrek bazun beste sail bat: *Arponazos* deitzen zana. Onen oñean ez da inoren izenik agertzen, bañan, batzuetan beintzat, Ramosen kontu egon oi zan. An azaldutako ziriengatik Ramosi eskatu oi zizkaten kontuak ta ez dago ortan dudarik. Izan ere, arpoia dantzatzeko etzan gizon makala.

Aldizkariaren zuzendaria Franzisko Zeverio jauna zan. Bein edo bitan, aldizkariaren esanak zirala ta jaun ori auzitegira salatu ta deitua izan zan. Istillua konpondu artean, Ramos jartzen zuten aren orde zuzendari.

Beraz, aldizkari ontan «jauntxo» xamarra zan. Aldizkariak bost urteko bizitza izan zun (1893-1897) ta noizean bein Ramosen berriren batzuk ematen dizkigu. Orregatik, Ramosen urte oyetako goraberak, gañerako urteetakoak bañon askoz obeto ageri zaizkigu. 1894 urtean, Otsaillan, Juzgadura edo auzitegira salatu izan zan. Salatariak etziran nornai: Patrizio Orcaiztegui jauna, Tolosako bikarioa, Pedro Aldalur jauna, Azkoitiko bikarioa, Juan Bautista Pagadizabal jauna, Errezilko bikarioa ta Franzisko Felipe jauna, Amezketako bikarioa.

Ara zer zan beren arteko istillua: urtebete lenago Ramosek bertso batzuk atera zitula, bañan legeak agintzen zuna bete gabe, au da, bertsoak alkatearengana ekarri gabe. Artean *El Cántabro* jayotzeko zegon, ta nun edo nola argitara zitun ta zer bertso ziran ez dakigu, zoritxarrez.

Ta, noski: *El Fuerista*, pozik ta iseka, ta *El Cántabro* Ramosen alde.

Alaxe zion onek: Ramosek bertso ayekin inori faltatu bazion ere, zor zitayen onra atzera bueltatzeko eskatu zezatela; bañan bertsoak legearen zeatasun ura bete gabe ateriak zirala ta kondenatzen bazuten, etzala orregatik inoren izenikan zurituko.

Auek dira *El Cántabro*'k dakarzikin arrazoibideak; apaizenak ez ditugu inun ikusi. Auzia ere zertan gelditu zan, ez dakigu.

1895 urtean Iñauterietako igandean, Otsaillaren 24'an, Tolosako *Círculo Carlista*'n Soroa'ren komeri bat aurkeztatu zan. «Alkate berriya» deritzana. Ramosek *Lorentxo egur saltzallid*'ren papera egin zun. Oso ederki aritu omen zan.



Festaren bukaeran, Nocedal'en kontrako Ramosen zortziko bat kantatu zan. Jendeak txalo ta txalo, ta berriro kantatu bear izan zan. Festa dana asteartean berriro zan.

1895 urteko Pazko egunean, Apirillaren 14'an, Ramosen «Ijtuen kontratuba eta ezkontza» aurkeztatu zuten. *Círculo*'an au ere.

Aritu ziran lagunak auek ziran: Antonio Antia, Teodoro Amonarriz, Joakin Arrese-Igor, Pedro Elosegui, Bitorio Iribarren, Inazio San Sebastian, Lorenzo Pujana, Joakin Alargunsoro, Jose Muñoa, Baleriano Mocoroa, Jose Azurza, Santiago Caballero ta Ramos Azkarate.

Festa ederra izan zan. Tokia txikitxo aibeite jenderentzat. Komeria bukatuta jende dana txaloka gogotik ta Ramos agertokira azaldu bear.

Urrengo igandean, *Círculo*'ko buruzagiak bazkaria eman zienten Izaskun'en komerian sayatutako laguneri.

Ordu batean bildu ziran. Ogei ta bost bazkaldar ziran. Ayetako bat, Ramos.

Lendabizi, *responsa* errezatu zuten ildako karlistengatik.

Bazkal ondoan, Ramosen kanta batzuk kantatu ziran. Gero, Baleriano Mokoroa'k jai artarako antolatutako bertso batzuk esan ta txalo asko bildu zitun. Urrena, Bitorio Iribarren'ek jai artarako gertutako kanta batzuk kantatu. Onak ere txalo asko bildu zitun.

Arratsaldean bertsolariak. Geyena gustatu ziranak, Inazio San Sebastian ta Lorenzo Pujana izan ziran. Komerian lan egindako bi lagun ziran auek. Beraz, etzuten beste iñoren bearrrik izan bertso-sayoa jartzeko.

Ta eguna bukatzeko, dantza-soka atera zuten.

«Ijtuen kontratuba eta ezkontza» inprentatu ta salgai jarri zuten. Errial bana kostatzen zan. Saltzeko tokiak, *Círculo* ori ta Franzisko Muguerza'ren moldiztegia, Rondilla 8. Korreoz ere banatzen zan. Artarako, aitatutako moldiztegiara amabost xentimoko bi sello bialdu ta kito.

Komeri au bi aldiz antolatu omen zun Ramosek. Orain ez dezakegu besterik esan, bañan, komeria argitaratzean, Auspoa aleginduko da bi antolapen oyen kontua argitzen.

1896 urtean, Iñauteriko igandean, Otsaillaren 16'an, Soroa'ren beste komeri au aurkeztatu zuten *Círculo* ortan «Lapurra» deritzana. Ramosek *Migel Martin*'en papera egin zun.

1896 urteko Martxuan, gogorra gertatu zitzaion. Istillu guzia kontatuko degu.

Ama Doloretako kofradiko diru biltzalea integrista bat zan, Ruperto Rezola. Bañan kofradiko zuzendariak ori kendu ta beste bat artu zuten.

El Fuerista gaizki esaka asi zan: kofradi ortako zuzendariak karlista zirala geyenak, ta diru biltzalea berri integrista, ta orregatik kendu egin zutela, ori Elizako gauzeekin politika egitea zala, ta orrela.

El Cántabro'k erantzun zion etzala ori egia, lengo diru-biltzalea integrista baldin bazan ere, berria ere alaxe zala, *Círculo Integrista*'ko konserje berbera gañera; ori garbi jokatzera zala, integristak berri aspaldi ari zirala bidegabeko lanetan; Rezola'k bere egitekoa betetzeko astirik etzula ta konserje orrek laguntzen ziola diru-biltze ortan, ta gero soldata erdibana izaten zutela; ayen *Círculo*'ra iñortxo ere etzala joaten ta, bestela ezin, ta orrela, kofradiko diruekin, osatzen ziotela bizimodu beren konserjeari; ori, ori zala Elizako gauzakin politika egitea.

Ta bukatzeko, orrela zion: «...resulta ser un becho el que de antes sacaban de ella (kofraditiek) los nocedalinos siquiera para pottaje, como suele decirse, del conserje de su círculo.»

Itz oyeke piper-miñ aundia zuten. Konserje orri *Pottaje* esaten baitzieten gaitzizenez. Arrazoi oyeke danak iñoren izenik gabe agertu ziran, bañan ezagun zuten nunbait etzutela Ramos beste jaberik.

Ori igandeko zenbakian agertu zan, Mar txuaren 25'an. Urrengo asteazkenean, 28'an, Ramos pasieran zijoan, arratsaldero bezela, Ibarre'ko erria pasa ta Berastegi'ko kamiyotik Belaunza aldera.

Pottaje orrek oitura orren berri bazekin ta zai zegoen, izkutan jarrita. Ramos gizajoa periodikua irakurtzen zetorren, lasai asko.

Parean pasatzean ta ustez-ustegabeen, Pottaje'k, zapla! sekulako ukabilkada eman zion arpegian. Ramos lurrera erori egin zan erdi kordegabetuta. Ala ere Pottaje jo ta jo aretu omen zitzaion.

Inguru artan zebillen emakume bat ori ikusi ta karraxika asi zan. Ordun Pottaje'k alde egin zun Tolosa aldera.

Gero jakin zanez, Pottaje'k ordubete pasea egin zun Ramos'en zai. Biaramonean alaxe zion *El Cántabro*'k: «De manera que el acto se ha realizado con premeditación, alevosía y ensañamiento.»

Irazusta mediku jaunak egin zion lenengo senda-aldia. Baita ere Ibarre'ko juezari parte eman. Bañan, zoritxarrez, ez degu iñun ikusi Juez onak zer erabaki zun.

1896 urtean, Uztaillaren lenengo egunean, Ramos Donostira bere arrebaen etxera bisitaz joan ta *ataque* bat izan zun.



Medikua etorri, ikusi ta bilduritu egin zan. Elizakoak emateko. Gabeko amarretan ekarri zizkioten. Bañan pasa zitzayon ta, andik bost bat egunera, Tolosara itzuli zan.

El Cántabro'k, berri au ematean, *ataque* au len izan zuana bezelakoxea zala esaten du. Lenengo ori noiz edo nola izan zun, ez degu iñun arkitu.

1897 urtean, Ramos auzitegira salatua izan zan. Salataria nor ote zan, ez dakigu. Aitzekia: Ilbeltzan *El Cántabro*'n agertutako idazkiren bat. Apirillan, Donostiko auzitegian auzia Ramosen alde erabaki zuten. *El Cántabro*'k alaxe zion: «*Estamos de enborabuena nosotros y la justicia...*».

1897 urteko Urrillan, beste *ataque* bat izan zun. Lengo biak bezelakoxea au ere. Egun batzuk oyeagan egin ta atzera ondo jarri zan. Aldizkariak zionez, urte batzuk baziran gaitz ori barrenean zala.

Len esan degun bezela, *El Cántabro* 1897 urtean bukatu zan, Abenduarean 29'an. Ramosek ala izendatu zitun bere aldizkari ortako azkeneko bertsoak: «Cántabro edo Cantauritarraren irakurlariyai agur bat despedidacua». Ta ala asten zan:

«Buruzariyen erabakiak — benaz errespetaturik...».

Buruzarien erabakia auxe zan: *El Cántabro* kendu ta onen ordaña eguneroko bat (El Correo de Guipúzcoa) ateratzen astea. Urte berean así zan au.

El Cántabro itzali ta illun xamar gelditzen zaigu ostera ere Ramosen bizitza.

Etzitzayon denbora luzerik gelditzen: zazpi urte eskax. Azkeneko urteak Tolosako Erruki-etxean egin zitun.

Euskeraren gramatika bat ere antolatu omen zun. Bere oroi-pengarriztat Erruki-etxeke moja Tolosar bati eman zion. Erruki-etxeke garai artako kapillauak (Don Miguel) ori jakin ta mojarri eskatu zion. Eman bai ta atzera bueltatu ez, orrela galdua da gramatika ori.

Elizakoak artu ta gauza guziak eginda, biotzetik il zan, 1904 urteko Martxuaren 26'an, 56 urte egiteko bi egun falta zituanean.

Andik bi egunera *El Correo de Guipúzcoa*-k Ramosen bertso batzuk zekarzkin. Etzekin oraindik Ramos illa zala. Ala zion: «Elosegui-ko On Jose Jaunari bere santuaren egunean». Laugarren bertsoa ala da:

*Bizitu zaite urte askotan
gaitzikan gabetanikan,
euskalduntasun guzjyarekin
euskera onraturikan;*

*euskaldunaren izen ederra
birtutez goyendurikan,
euskaldunaren izen ederra
biyotzez maitaturikan.*

Egia esateko, ori zan dirurik ez euki ta balio aundiko testamentua egitea.

Biaramonean periodiku onek berak eriotzako berria ematen zun. Esaten zun illa zala euskal lurreko gizonik famatuenetako bat, ondasunengatik eta biyarko egunarengatik kezkarik gabeko gizon arlo-te bat; edozein billera edo festara agertu ta danak, naiz pobre ta naiz aberats, naiz zar ta naiz gazte, pozik jarri ta gustora aditzen zutena; kasino batetik ala taberna bateko maitik berdin-berdin bertso-kantari aritzen zana jendea txaloka erotuta bezela jarri artean...

Oraindik ere badaude Tolosan Ramos ezagutu zuten batzuk.

Berai zor dizkiegu emengo berri asko.

Txikia omen zan, errena, bizarra ta txapel aundi batekin ibiltzen zana.

Lau gauza zitun biotzean: Euskera, Fuegoak, Tolosa ta Probintziya.

Munduan bizi zala, ala esaten omen zun «Zeruan, jai aundi- ren bat danean, euskeraz itzegiten dute». Beraz, Ramosentzat beti jai aundia izango da an goyen.

Antonio Zavala



GALTZAUNDI

ta beste bertso asko

Ramos'en liburu ontako bertsoak lau zatitan jarri ditugu:

Lenengoa, Tolosa'ko Iñauteriak. Festa oyetan kantatzeko egiñak dira, dudarik gabe, bertso oyek danak.

Bigarrena, Kezketan. Ala bait zegon Ramosen gogoia bertso oyek jartzerakoan.

Iruugarrena, Gure gizonak. Ontan ederki asko ageri da Ramosek Gipuzkoari eta Gipuzkoako gizonai zien maitetasuna.

Laugarrena berriz, «Animak bideratzen». Fedareen gauzetan ere beroa zan Ramosen biotza.

Lenengo iru zatien izenak gerok asmatua dira. Laugarren zatiarena bertso batetik artu degu.

Ramos-ek etzun bere denbora guzian libururik argitaratu. Liburu asko osatzeko gaya sakabanatu, orixe bai. Beraz, gaurko au Ramosen lenengo liburua da, ta bere bertsorik famatuenen izenarekin batayatu degu.

TOLOSA'KO IÑAUTERIAK

Esan bezela, zati ontako bertsoak Iñauterietan kantatzeko egiñak daude. Ara nola egiten ziran festa auek garai artan: kalera, ta baita ere zezen-plazara erri guziaren aurrera, *Comparsak* azaltzen ziran. Mutil-taldeak izaten ziran oyek, ta mota askotakoak: baratzagilleak, artzayak, ikasleak, langille maisuak, zapatariak, pelegriñoak, ta abar. Ramosek ogigilleak, basarritarrak, Erniyoko euskaldunak ta erromatarrak azaltzen dizkigu. *Comparsa* zerena zan, ba alako jantzia artu ta kalerik kale ibiltzen ziran propiyo jarritako euskal bertsoak kantari. Oitura alaxe zan Tolosan ez ezik, Donostin, Eibarren, Plaentzin...

Bañan, Tolosan beintzat, denborarekin ziara atzenduta, gelditu dira bertso oyek danak, ez ordea Galtzaundirenak. Auei ez die denborak bate erdoirik sortu. Orregatik jarri diogu liburu oni daukan izena. 1880 urtetik 1890 urterako Iñauteriren batentzat jarri zitun Ramosek ta arrezkero Tolosarrak ez dute urte bakar bateko Iñauteririk utzi bertso auek kantatu gabe, *charangan* aurretik, kale guzitan barrena, soñu, bulla ta saltoka.

Gerrako lenengo urtean ere, gerra zala ta Iñauteririk egitea etzegoala ondo ta Gurutz-bide bat egin zan Igandean, kaletan barrena, oso seriyo. Bañan astelenean edo asteartean, Malaga artu zalako berria e1 zan. Segituan jendea ta musika kalera, ta Iñauteri ederrak egin ziran ordun ere aitzeki orrekin.

90 urteko Tolosako andre batek esan digu oraindik ere, gogotan dula nola ikusi zitun bere txikitan Ramos eta Galtzaundi bera Enpero kalean Iñauterietan gitarra batekin bertso kantari.

Bigarren bertsoan aitatzen dan «alaba ipurtaundiya» Madriko *picador* batekin ezkondu omen zan.



BERTSO BERRIAK TOLOSA-KO GALTZAUNDIK BERE BURUARI JARRIAK

Neri deritzat Galtzaundi,
apellidua det Goñi,
Aldasoro izen goitiya
deitzen dirate neroni;
iltzerikan ez nuben
lenago pensatzen,
bañan oraingotikan
ez naiz eskapatzen,
testamentu egitera
nua ni lenbailen,
nere parientiak
lasatu ditezen.

Aitaren Semiaren
Espiritu Santuaren,
Jaun zerukuak lagun zaidala
lan onetan neri arren;
sentimentu bakarra
dadukat barrenen,
alaba ipurtaundiya
utzitzia emen,
orra neregatikan
oyek nola dauden,
Jaunak eraman nazala
zerura lenballen.

Nere lengusu Pocofinori
nai diozkat bada utzi
nere eskatzeko estanteriya
bere jenero ta guzi;
bañan ango kristalik
ez dezala ausi,

bestela utziko dizkat
guziak Ramos'i,
egiten badiote
jaun oni igesi,
laister juango zaizka
danak Rodriguez'i.

Ni il da gero nere emaztia
penaz ilko balitzake [1]
nere onduan enterratzia
iñola al balitz nai nuke,
eta gañian jarri
letra bat aundiya,
emen dago Galtzaundi
eta konpañiya,
poz aundi bat artu zun
Tolosako erriyak
merkatu ziralako
ordun erariyak

Entierrua nai det egitia
neri bigarren klasian,
lau zapatarik eramatia
gañera berriz aidian;
jota nabarra juaz
Enpero kalian,
sobrekamak balkoitan
naramatenian,
Arramele zubiyen
aizken aizkenian,
zagi bat ardo jarri
kajaren gañian.

Nik oraindano egin izandu
dituan testamentuak
gaur bertatikan izango dira
ayek danak borratuak;
eta orain firmatu
nere testiguak,



aditu baituzute,
gaur nere kontuak;
ixilik idukiarren
nere sekretuak,
Dametako iturriyan [2]
eran kuartillu bat.

[1] Esan izan digute emen *pozaz* bear dula.
Bearbada bai, bañan guk arkitu degun paperari
zarrenari segitu diogu, ta ontan *penaz* dago.

[2] Dametako iturriya Rondilla kalean zegon,
Donostira aldeko kale muturrean. Emen ez luzatzea-
gatik, *Galtzaundi*'ren oarrak liburuaren bukaeran jarri
ditugu.

GAL'TZAUNDI'REN PIZTUERA

Ill nintzalako aspaldi
pozaz zendeten kantari,
bañan piztuta orra etorri
Zaragoza-tik Galtzaundi;
egon nintzan kafian
txit ninduten maite, (gutxi)
uste nuen nintzala
ango sobrestante,
ontziyak garbitutzen
nizkaten txit merke,
zigarro punttak eta
mantenuen truke.

Beti nengoan kezketan,
lotan berriz ametsetan,
emazte grabe ezin etsiya
juan dan aspaldi onetan;
beñere ezin kendu
zitzaidan burutik
gaitzak emanda ere
gendela urruti,
izan degubelako
elkar maite beti (gutxi)
oñez bide guztiyak
nituben idiki.

Iritxi nintzan etxera
famiya ikustera,
andre gaxua azkar etorri
zitzaidan neri aurrera;
eman giñokan esku
elkarri txit gogoz,
barrena beterikan
neukala nik ardoz,



gero kaballeruak
atera or datoz,
beeraño jexitzeko
mesedez Galtza-post.

Orduko nenguen oyian
mozkorra pasa artian,

Emaztia:

Goñi, ojuka ari zaizkizu
kaballeruak atian;
Senarra: Esan, esan jaun oiri
ia zer dan kausa,
itzegiteko obia
dala biyar goiza,
eta gauba soseguz
nai detala pasa,
egi bat esateko
ez naizela gauza.

Emaztia:

Entzun bezate, kaballeruak,
nere senarrak zer diyon,
naigo omen du gaur gau guztian
pake gozuan lo egon;
ez omen da, ez, kapaz
orain jekitzeko,
kostumbre txarra dauka
beti mozkortzeko,
orrelako gizonak
dira lotsatzeko
lagun ederra daukat
ondo bizitzeko!

Gau on pasatu, kaballeruak,
orain banua oiera,
senarrari nik egin deyotan
konbeni zaidan galdera;
ondo dakite nor dan
lendandik Galtzaundi,

nola ibillitzen zan
beon farragarri,
ezpadit Aragoitik
dirurik ekarri,
matzetan jarriko det
txori-izugarri.

Nere Galtzaundi maitia,
nun daduzkazu gordiak
Zaragoza-tik ekarritako
Carlos Tercero-n urriak?

Senarra:

Etzaitia zu egon
gauza orren kezketan,
ugari ekarriya
or dago maletan
ez banaiz ari beintzat
orain ametsetan
denak zuretzat dira
bigar amarretan.

Emaztia:

Ondo lo egin, Galtzaundi,
amore eman alkarri,
bigartandikan emango diyot
jende guztiyai arpegi;
baldin zuk orrenbeste
badezu ekarri,
goiza etorritzeko
gutziz nago larri,
bazkari aunditxon bat
bearko det jarri,
gure ontasun oyen
alabantzarri.

(Urrengo goizian)

Senarra:

Zer ordu ote da, nere Fermina,
arren egizu galdia,

*Emaztia:*

Nere Galtzaundi, or diotenez,
ia amarrak aldia;

Senarra:

Bart arratsian ala
egin nuben amets,
aberastu nintzala
Zaragoza-n errez,
maleta beterikan
zeguala urrez,
eta zu an zeundela
diru airi farrez.

Emaztia:

¿Zer diozu zuk, pikaro txarra?
¿egin dezula ametsa?
ni engañatzen ez nago bada
zuk uste bezin errex;a
zuazkit etxetikan
kanpora agudo,
ondo asperturikan
naukazu lenago,
alfer bizitu zera
ala nai're gero,
etzaitut ikusi nat
aurrian geyago.

Senarra:

Egiñkizuna badet nik
etxe onetan oraindik,
gauza guziyak partitutzian
alde egingo det emendik;

Emaztia:

Etzan lotan egondu
gizon bat zuzena,
Aldatxoro izena
jarri zizubena,
gauza bat bakarra da
emen dezubena,

zapateruen maya
ankik ez dubena!

Senarra:

Ezkondu ezkeroz etxe onetan
diraden gauza guztiyak
legez ta bidez neriak dira
oriyen erdi erdiyak;

Emaztia:

Ere diña beñere
ez dek bada egin,
orain ere gau ta egun
zurrutian abill,
bizkarrian ausiko
dizkiat bi makill,
iri ezer eman bañan
nayago nitek ill.

Senarra:

Zure makillan bildurrik
etzait arkitzen barrendik,
Zaragoza-tik ekarri eta
puñal bat emen daukat nik;
odolak iyagiten
asitzen badira,
azkar jarriko zaitut
zerura begira,
maya baño geyago
neriak badira,
elkar ill gabetanik
goazen justizira.

Emaztia:

Nai baldiñ badek juezengana,
orobat alkatetara,
orain beñepein artzak jipoya
ama alabak emanda;
eldu, eldu, alaba,
makilla banari,



ederrak emateko
mozkor txar oneri,

Senarra:

oy! oy! utzi nazute
Jainkoatik neri,

Emaztia:

ez, ez, eskallean bera
ortxen joan ari.

Senarra:

Andria nausi ikusitzia
nere biyotzak damu du,
nere burua nik illko nuke
baldiñ balorerik banu;
bi aldiz ill ezkeroz
gaitza da piztutzen,
argatik eriyotzak
nau ni txit bildurtzen
ezpanau emaztiak
agudo artutzen,
«abajo las mujeres»
asiko naiz deitzen.

Entzun dirazu, nere Emaztia,
aitzeneko arrazoya,

Emaztia:

Ez, ez, iretzat ati au zio
beti betiko itxiya ;

Senarra:

Abajo las mujeres
deabruz josiyak,
ai ilda bazendete
zeraten guziyak,
Josafat-an izango
ditugu auziyak,
an konponduko zaitu
zuzen justiziyak.

(Au kantatu ta sagardoteira joan zan)

* *Galtzaundi'ren piztuera'ren* oarrak ere liburuaren
bukaeran jarri ditugu.

ZORIONEKO KARNABALAK

Coro:

Aurtengo karnabaletan
gutziz gabiltza neketan
danok kontratu onetan,
konformaturik arkitzen dira
letu diran kondizioetan,
iruki gabe penetan
ezkondu'itzagun gaur bertan,
gerta gaitezen bodetan.

Ezkontzaren enkargatua:

Au da gertaera berriz,
orain lenbiziko aldiz
inpedimentua zaldiz.

Nobija:

Ai bada, Jauna, nayago nuen
ontan gertatu ezpanitz,
itzak emanik bi aldiz
utziko nuke au berriz,
gauza okerrik ez balitz.

Nobiyua:

Nai nazula ni utzi,
ez dezu pensatzen gutxi,
kontratua dute itxi;
zertako etzera lenagotandik
gauza ori pensatzen asi,
itzak emana ta guzi,
ni izango naiz lenbizi,
pruebak orain erakutsi.

Sententziatua:

Letu dirate sententzia,
aditzen det agonia,
Jesus, miseriakordia;
emakume batengatikan



kentzen dirate bizia,
egin dirala falsia
badaki mundu guziak,
au da nere desgrazia.

Nobiya:

Ein dizudala falsiya,
ez da bada ori egiya,
geldi zaitez igarriya;
aitak eta amak kulpak dituzte
ni egotia nobiya,
daudela miseriyen,
artzeko gizon argiya,
mantentzeko familiya.

Sententziatua:

Ez dezulako sentitzen
klaro dizut nik igartzen,
garboz ai zera kantatzen;
ni il da gero asiko zera
gizonarekin dantzatzen,
ez nuen nik au pentsatzen,
mundua det despeditzen,
bañan onraz naute iltzen.

Ezkontzan enkargatua:

Biar dizuet nik galde
ote zeraten konforme
egiteko gizon ta andre;
erantzun ere biar dezute
boz klaroan ta txit firme.

Nobiya:

Bai, Jauna, konforme gaude
egiteko alkarren jabe
batere lotsarik gabe.

Ezkontzan enkargatua:

Ezkondurikan zaudete,
alkar maitatu zazute,

bizitzeko onradamente ;

Elizjakikoa:

Zuen suertia oraintxen laister
ikusi biar dezute,
desiatzen al dezute
puska egitia abundante?

Nobiya:

Jauna, ori nai genduke.

* Ikusi: Tolosako Fakundo Adurriaga «Besamotza»
zanaren eskuz eskribitutako bertso mordo.

(Auspoaren lenengo liburuaren oarretan gauza bat
oker dago. Fakundo Adurriaga «Besamotza» zanaren
bi bertso mordo aitazten dira. Izan ere, aren ondo-
rengoen etxea arkitu genitun. Bañan oso letra desber-
diña dago liburu bakoitzan, ta Fakundoren alabai gal-
detu genien. Esan ziguten, lenengo mordo bere aita
zanak idatzia dala, bañan bigarrena beren aitaren ana-
yak, Timoteo izena zuana.

Beraz, Auspoaren lenengo liburuan, «Fakundo
Adurriaga "Besamotza" zanaren bigarren bertso
mordo» esaten dan bakoitzean, «Timoteo Adurriaga
zanaren bertso mordo» esan bear du; ta Fakundoren
lenengo bertso mordo aitazten danean, kontuan artu
bear da ori besterik etzula idatzi ta ez dula bigarren-
gorik.)



TOLOSAKO OGI-GILLEAREN JUANERA

Irten gera kalera
guztiok lanera,
ibilliyaz kantari
ogiya egitera

Zuentzat

Galezti eta beltza
atzo zarrarentzat,
zuriya eta merke
neskatx gaztientzat.

Kalerik kalerik kale
Tolosa gurean
zoraturikan pozez
gabiltza lanean.

Kantari

Biotza eskañiyaz
aurtxo polit oidi,
nausiyak nai duelako
gu ezkontzia sarri

Orra amabi lagun
saldu nayan pozik
ez ote da izango
guretzat neskatxik!

Agudo

Oraintxen gaude bada
ezkontzeko bero,
ez gure billa ibilli
oztu eta gero.

Saldu nai degu pozaz,
onradu eta merke,

leku on banetara
juango giñake.

Maiteak

Irikitzen gabiltza
zuetara bideak,
egiten ote geran
senar emazteak.

Ezkontzen bazerate
gurekin gaizeman,
gogotikan biarko
suari aize eman.

Gañera

Gizonaren ondolik
lenbizi lanera,
leamiya egin ta
sartzeko labera.

Astian bi ostiral,
ondoren larunbata,
izango dituzute
gurekin izanta.

Seguru

Gañera zeok biar
gizona mantendu,
orain da denbora ta
gauz onari eldu.

Orra kondizioak
garbiro ipiñi,
konforme bazerate
agudo etorri.

Gugana

Iritxitzian eman
txit triste laztana,



artuko dezuelako
gizon alper bana.

!Au lana?

Ari gaitean ari
gogoz lanean
dantzara joateko
arrats aldean;
jira ta bira
plaza berrira,
aurtxo politak ara
juango dira
txit pozez,
erantzutera guri
bayetz ta bayetz.

Ay! ekusten ditugu
orrenbeste arpegi,
eguzkiyak bezela
eiten dute argi;
alde batetik poza
bestetikan lotsa,
aur oiri eman bear
danok biotza.

Guazen, mutillak, guazen,
guazen aurrera,
esanaz badagola
emen aukera,
jende alferra
eta okerra,
zuen kontura jango
degu eperra,
bai, bai,
egunero orrela
degu bizi nai.

* Ikusi: Aita Juan Inazio Arana zanaren bertso bilduma, Loyolan, inprentaren izenik gabeko kanta-papera. Ontatik aldatu ditugu onera.

Tolosako Fakundo Adurriaga «Besamotza» zanaren eskuz idatzitako bertso-mordoa. Biak berdin berdin daude.



KALEKO BIRUNKA

Euskara maite degu
biotzetik asko,
beraren sabeletik
jayo giñalako;
aurrak ama gaixua
beti du maiteko,
bere bular biyetan
aziya dalako.

Onra guziyarekin
lenbizi gu gera,
Tubalekin ikasi
gendunak euskera,
izkuntza gorde degu
ordutik onera,
ala gerta dedilla
emendik aurrera.

Jayo zan Larramendi
ain zori onian,
euskara jarritzeko
bear zan oñian;
gero berriz Aizkibel
arren ondorian,
gorderikan dauzkagu
biyak barrenian.

Amak izandu dezan
beti osasuna,
aditu Larramendik
esaten diguna;
euskarai izateko
beti naitasuna;
eta ikasitzeko
dun edertasuna.

MARTXA

Egiputzuan jayuak gera
eta ez degu damurik,
Españi (y) onek iñun bai aldu
iskiñ au bezin ederrik?
loku zelayak arkitzen dira
erri politez jantzirik,
menditan berriz ikusten dira
jendez betiak basarrik,
o zer fabrikak lanketakuak,
kosta ederrak bestetik,
jendea franko etortzen dala
bañuetara or goitik.

* Ikusi: Tolosako Fakundo Adurriaga «Besamotza»
zanaren eskuz idatzitako bertso mordoa.



ESTUDIANTINA BASERRITARRAK

Etorri gera gu basarritik
gure guraso onak
sokorritziagatik;
nagusiyari ez diogulako
aurten pagatu errentik,
despedida eman diote,
ateratzeko etxetik.

Lotsatzen gera ostegunian
Tolosan ibillitzia
onela eskian;
kosetxarik ez degulako
izan aurtengo urtian,
argatikan arkitzen gera
txit nezesidadian.

Galtza bastuak eta mankutsik
patrikarak ere daude
dauzkagu utsik;
Tolosan ez ote da orain
errukitzen neskatxik,
botatzeko balkoitikan
pesetatxo bat pozik.

Danak gera zuen amantiak
estudiantiak
oraindik gaztiak;
len pasatuagatikan
ain egun tristiak,
orain konsolatzen gaitu
zerbait biltziak.

* Ikusi: Tolosako Fakundo Adurriaga «Besamotza»
zanaren eskuz idatzitako bertso mordoa.

HIMNUA TOLOSAKO ZORTZIKUA

Coro:

Baguaz da baguaz,
baguaz kantari,
alegrantza emanaz
erri guztiari;
festa polit polit bat
nai genduke jarri,
ikusi nai duenak
plazara etorri.

Zortzikua:

Saludatutzen degu
Ayuntamentua,
baita begira dagon
jende onradua;
persona asko ikusirik
gaude zoratuak,
ikusteko asmuan
gure kontratua.

Tolosarrak geratu
ez degu nai gaitzik,
jendia umorian
jarritzia baizik;
plaza ontan ez da egin
orlako ezkontzarik,
gelditu biar dezute
gure ustez pozik.

Guztiz noble ta leyal
ta txit balerosa,
titulatutzen zaigu
gaur gure Tolosa;
izandua ta dalako
onen jenerosa,



meritu oyek guziyak
mereziyak dauzka.

Biba Tolosa eder,
Gipuzkuaren ama,
Europa guztiyan
dadukazu fama;
onratutzera gatoz
danok zuregana,
emen jayo giñalako
daukagu afana.

* Ikusi: Tolosako Fakundo Adurriaga «Besamotza»
zanaren eskuz idatzitako bertso bilduma.

ERROMARA JOAN ZIRANEKO KONDIZIYUAK

Lartaun:

Zuetatikan jarri
orain bost bat lagun,
bainandiak [1] ondo
tratatu ditzagun.

Coro:

Zedori bezin onik
bai al dago inun,
zuk eiten dezunera
utzitzen degu gaur.

Lartaun:

Beraz galdatutzera
nua bertatikan,
Antistio Jaunari
bakar bakarrikan;
ez dezute izango
nere peikarikan, [2]
bainandiak jartzen
danon partetikan.

Coro:

Biba, biba, Lartaun,
gure nagusiya,
libratzea nai duna
Kantabri guziya.

[1] Bainandiak: Kondizioak

[2] Peikarikan: Faltarikan



LARTAUNEN ETA ERROMATARREN BAINANDIAK

Lartaun:

Aizazu, Antistio,
oraingo galdera,
zer itzetan juango
gera Erromara?

Antistio:

Augusto etortzian
iñola al bada,
gauza bear bezela
erabakiko da.

Antistio:

Galdutzen badezute
Erroman pelia,
berriz gertatuko da
gudako bidia.

Lartaun:

Gure alde gelditzen
bada onoria,

Antistio:

Libre utziko det nik
euskaldun jendia.

Lartaun:

Zer leku daukazute
Erroman jarriya,
peleatzeko danon
jende gudariya?

Antistio:

Guziok pasatzian
Tiber'ko ibaya,

zelai bat antxen dago
guztiz agiriya.

Antistio:

Peleatu bear da
itz orien legez,
eta emen bezela
txit gizontasunez.

Lartaun:

Naiz zelai ura bete,
euskaldun odolez,
gu portatuko gara
beñepein onorez.

Lartaun:

Coro:

Bildurrik gabetanik
Erromara guazen,
aitaren seme danai [1]
libratu ditezen.

Otabiano:

Coro:

Etzerate ertengo
lur ontan bezela,
Erromaren izena
borratu bestela.

* Ikusi: Fakundo Adurriaga «Besamotza» zanaren eskuz eskribitutako bertso-mordoa.

[1] Bear bada emen «Aitoren seme danak» bearko du. Bañan aitaren jartzen du dudarik gabe ta orrela. utzi degu.



EGIPUTZUA ILLEZKORRA

Agur eiten diogu
alkate jaunari,
baita bere urrengo
bilguna danari,
orobat plaza ontako
jende guztiari,
anayatasun onek
orain zer diruri?

Au da batzarra on bat
Euskaldunarena,
lur maite onentzako
gauzik ederrena;
argatik artu degu
danok oroipena,
berritzeko ipinitzen
gloririk zarrena.

Jesukristo mundura
jayo zan baño len,
bi glori izan giñun
Erroman da emen;
bi milla urte iya
igarotu arren,
askok ondo gordeta
dauzkagu barrenen.

Ondoren gure asabak
ainbeste glori
eman izan zizkaten
Egipuzkuari
Roncesvalles'en eta
Covadonga'kin bi,
frantzes eta moruak
badakite ongi.

Oroitu utsarekin
Navas de Tolosa,
saltoka asten zaigu
danori biotza;
Euskaldunak egiñak
ausardi zorrotza,
moruak artu zuten
sekulako lotsa.

Aragoiko erregea
genduen bentzutu,
eta Nafarrokoa
katetik libratu;
Belaten Frantzesakin
giñan peleatu,
arma Gipuzkuakoari
ia begiratu.

Aztu ditzagun bada
asarre guziak,
eta ondo maitatu
Iputzen gloriak;
esan zagusun gerala
Euskaldun garbiak
eta mantxik ez dula
gure jatorriak.

* Ikusi: Tolosako Fakundo Adurriaga «Besamotza»
zanaren eskuz idatzitako bertso mordoia.
Ez du esaten Ramos'enak diranik, bañan ondo eza-
gun dute beste aitarik ezin izan dutena.



GIPUZKOA BENTZUTEZGARRIA

Coro:

Gure Kantabri onetan
gerran gabiltza benetan
Gipuzkoako menditan;
Otabianok atiak itxi
zizkigun alde guzitan,
etsai oriek lur ontan,
gu bentzutezko asmotan,
sayatu dira askotan.

Coro:

Gudari txit egokiya
degu danon giyariya,
Lartaun buruzariya;
Erromatarrak ezin jiratu
diotena arpegiya,
ain dauka fede biziya
eta ausardi aundiya,
libratzeko Kantabriya.

Coro:

Aurtengo inauteriyak
ditugu zoragarriyak
Ernioko gudariyak;
Lartaunek eta Uso ederrak
goza ditzaten gloriyak,
kondizio egokiyak
dituzte irakurriyak,

Eskribaua:

esposatzeko gaur biyak.

Eskribaua:

Asi nadin alabatzen,
oyen biotzak mugitzen,
gloriaz bete ditezen;

Coro:

Eskribau jauna, abiya bedi
aur oidi biyai galdetzen,
konforme bai da arkitzen
bata bestiaz jabetzen,
eztayetara guazen.

Otabiano:

Bost urte ontan pelian
gabiltza Ernio mendian
guziontzako kaltian;
aizken batalla egin dezagun
zelaitxo eder batian,
biok jende berdiñian
edo errendi ...ian [1]
jartzeko gure mendian.

Lartaun:

Orain artean bezela
nai det emendik aurrera
maitatu nere bandera;
Kantabriatarrak inola ezin
jarri Erroman mendera,
ezta galdu're euskera,
ba danok juañ iltzera
nai dezun zelai batera.

Otabiano:

Gera biok konformatu,
orain lekua billatu,
onorez gaiten portatu.

Lartaun:

Nere juezak zurearekin
dezatela aukeratu,
legez nai det nik portatu,
naiz gu guziok ondatu
edo betiko libratu.

Lartaun:



Amoruan da latza,
onraz berriz aberatsa
euskaldunaren arraza;
etsai oriek bentzututzian
egingo degu ezkontza,
galtzia gure izkuntza
ez al deizkozu lotsa?

Usua:

bai, tori nere biotza.

Usua:

Obe da iltzea pelean,
daramakizun fedean,
jartzia bañan mendean;
ni ere ilko naiz zure begiak
jiratuta ikustean,
biok kajatxo batean
sar gaitzate laurpean,
lauburu onen legean.

Lartaun:

Adios, nere Usua,
agur, bion gurasuak,
pozaz ixuri malkuak.

Gurasoak:

Zu il ezkeru nola libratu
jende Kantabriakuak?

Lartaun:

Badaude oiñordekuak,
Lekubideren frutuak,
guziz fede bizikuak.

Lartaun:

Donzella manso mansua,
iritxi zaizu plazua,
penaz iltzeko gaixua;
auxen da lana ezin egiña
esposayoko plazua,
Urumeako usua,
zedorren biyotz osua
tori, maitetxo gozua.

Lartaun:

Ama zeruetakua,
biyotz guztiz berakua,
aur au nigandik ba'ijua;
biyotzetikan eskatzen diot
eiteko oni lekua,
da mantxarik gabekua,
frutu Urumeakua,
Tubalen odolekua.

Antistio:

Erromako senaduak
bigaldu dit mandatu bat
daudela asarratuak;
zeren urrian jende arrotza
geralako bentzutuak,
jakin nai ditu kontuak,
ote zeraten prestuak,
onra guzitan justuak.

Otabiano:

Nai al dezute etorri,
Erroma aldera txit sarri,
peleatzera an garbi;
nik egun gizon, zuek ainbeste,
zelaitxo batian jarri,
ia zein dan garailari,
ikusi nai dute ongi,
senaduak dio ori.

Lartaun:

Lengo onretan ez ezik
ez bada gauza ori baizik,
ez dizut ukatzen itzik;
Erroma aldian laister aituko
dituzute gure irrintzik,
etzaigu amoztu lanzik,
ain gutxi oztu biotzik,
juango gera txit pozik.

*Erromako Presidentea:*

Senaduak du tratatu,
nai zaituztela maitatu
eta semetzako artu;
nai badezute gure alabak
gaur bertatikan senartu,
gerrak dirade bukatu,
alkar dezagun amatu,
pakean gaiten gertatu.

Lartaun:

Zuen alabak guretzat
ematia emaztetzat,
grazi ederra deritzat;
bañan glori au geldí dedilla
Gipuzkoako mendintzat,
jarríko gera senartzat,
seme ordeko beontzat,
pake osuan danontzat.

Otabiano:

Lartaun gizon adítua,
euskaldunaren burua,
txit izan zera prestua ;
eman dizkagun biok alkarri
orain txit pozez eskuak,
zuek eta bentzutuak,
jende guziz anaituak,
orain ekatzu musu bat.

* Ikusi: Tolosako Fakundo Adurriaga «Besamotza»
zanaren eskuz idatzitako bertso-mordoa.

[1] Ezin irakurri izan det emen Adurriagak zer dion.

SANTOS ILTZEKO

Bertso auek zeñenak ote
diran ez dakigu. Ramos'en izena iru
aldiz azaltzen da; *Lartaundarrak* eta
Erromatarrak eta *Erroma* ere aitatzen
dira. Beraz, dudarik ere ez Ramos'en
kontra egiñak dirala. Orregatik jarri
ditugu emen. Nor ote zan Santos ori
eta zer istillu zerabilkiten?

Ibarrera juañ ziran iru
sagardua eratera,
izateko ere lagun
sagardua eranda;
gauza guztiak ondo
esan ditzagun
oyek juañ ziraren
izaníkan lagun.

Zertara juañ ziran,
Erramos maitea,
Beobíko-zubíyan
jartzera katea;
ondo pensatu zendun
egitea kaltea,
zenbaiti gertatu
zayote dotea.

Ramos díretore,
guzien kapítan,
etzuben uste zaník
orrelakoríkan;
eztala uste du ark
emen besteríkan,
arri jarríko zaizkan
kantak emendíkan.



Uste zuala Ramosek
bera nagusi,
ori bezela berriz
beste asko asi;
etzuben pensatu
ezer gutxi,
ezta jarriko ere
gurekin nagusi.

Puñal zorrotza dauka
neretzat sartzeko,
enau arengatikan
ni ikaratuko;
badauzkagu egoki
gauzak esateko,
arren puñalak
eztu Santos illko.

Orra Lartauntarrak
eta Erromatarrak,
ayengatik egingo
ditugu guk farrak;
ez dira izango emen
alegratzi txarrak,
oyek ekarri dituzte
bueltan indarrak.

Beobiko zubira
allegatu zanian,
istilluak an ziran
oriyen artian;
Erroma gelditu da
guztiz apartian,
onera etorri dira
ezin da bestian.

Orra zortzi bertsorekin
zuen despatxua,

nai dubenak erosi
dauka deretxoa;
gauza erosiyak
dauka probetxua,
zu etzera izango
guziyon maixua.

(Zortzigarren bertsoaren azpian irudi bat dago,
puñal bat, eta au eskribituta: *Toledoko puñala*.)



KEZKETAN

NERE MAITIARI

Nere maitia Donostiyan
dago juan dan aspaldiyan,
gau eta egun arkitutzen naiz
beti aren memoriyan.

Coro:

Etzait kenduko, etzait kenduko,
etzait kenduko kezkarik,
zergatikanen nere maitiak
etzuan bate kulparik.

Etorri zan estranjeriatik
nerekin ezkontziagatik,
amoriyua manifestatu
zidan neri txit barrendik.
Etzait kenduko...

Asko ezin sufriturikan,
aterarik zuloarikan,
gure ezkontza sagradu ori
galerazitziatikan.
Etzait kenduko...

Adios, nere maitia,
ondotxo bizi zaitia,
fabore in biazu beste iñorekin
ez akomodatutzia.
Bestela ilko naiz, bestela ilko naiz,
bestela ilko naiz zugaitik,
bizirik alargun bizi gaitezen
bakoitza geren aldetik.



AUXEN DA LANA

Nere maitia Donostian
dago joan dan aspaldiyan,
urturik nago gau eta egun
beti bere inbidiyan.

Istribillua

Ezin nezake, ezin nezake
iñola gaizkirik esan,
zeregatikan maiteagorik
ez dezakean nik Izan.

Ikusitzean kalean
aur ori pare parean,
alako doñu triste triste bat
jartzen zait biyotz nerean.

Istribillua

Jakindu ditut, jakindu ditut
maite politaren miñak,
zeluetatik izan ditugu
guziz kontu desberdiñak.

Zortzi urtean nork daki
zer kezka degun eduki,
ezin ikusi, ezin itz egin
eta bestetik urruti.

Istribillua

Ai gure kartak, ai gure kartak
izanagatik zintzoak,
orra nun dauden denak penatzen
biyorengatik gaxoak.

O zer naitasun aundiya,
o maitetasun lodiya,

o amodiyo neurri gabea
estali ziragarriya.

Istribillua

Elkar ikusi kalien eta
su artutzeko zoriyan,
bestetik iñor bai ote dago
orrela Euskalerrian?

Etorri zan Donostira,
egiñik itxasoz jira,
esku emanta egondu giñan
elkarri pozez begira.

Istribillua

Gero etxera joan giñaden ta
lendabiziko izketa,
biyok oñazez, biyok negarrez,
amore eman ezin ta.

Akelartarrak platikan,
kiñuka sukaldetikan,
gure ezkontza sagradu ori
eragozteagatikan.

Istribillua

Etzait kenduko, etzait kenduko,
etzait kenduko kezkarik,
zeregatikan maite politik
ez duelako kulparik.

Bukatu dira kontuak,
kontu txit mirarituak,
ez ote gaitu elkarganako
egunen batez zeruak!

*Istribillua*

Beñepen orain, beñepen orain
arkitzen gera galdurik,
mundu onetan ez da izandu
biyorentzako gustorik.

Agur, maitetxo nerea,
Mayatz illeko lorea,
maite zintzoa, maite garbiya,
maitetxo pare gabea.

Istribillua

Arren ta arren bizi gaitezen
alargun biren moduan,
istoritxo bat gelditu dedin
beti betiko munduan.

* Ikusi: *Bertso-papera*: Tolosa, Imp. de E. López.
Tolosako Timoteo Adurriaga zanaren bertso-mor-
doa.

Anayaren (Facundo Adurriaga «Besomotza») bertso
mordoa lau bertso daude, bañan desberdin xamar,
irakurleak ikusidun bezela. Laugarrenaren ondoan
«Ramos Azkarate» dio ta argatik jarri ditugu liburu
ontan. Bañan egia esan, duda apur bat gelditu zaigu
Ramosenak ote diran.

Bertso berriak Fernando Amezketarra-ren doñuan
LAZKAUKO PLAZAN

Jokatu ziran bi partidu marzuaren 8'an 1885'garren urtean

Lengoan bi partidu
Lazkaon izanik,
kantatu gabe ¿nola
egon ixilik?
oraintxen ere nago
eziñ sinisturik,
mirabe batek ala
jokatu zubenik,
¿ote du besterik,
bere parekorik,
bi partidu ain errez
jango dituenik,
ai, baldin balitzake
bera bakarrik.

Askotxo balirake
modu artakoak,
plazan ¿nola agertu
gizonezkoak?
arren, gorde gaitzala
gure Jaungoikoak,
nagusi jarri gabe
emakumezkoak,
gaur Lazkaukoak
badauzka egoak,
zeruak eman eta
bañan alakoak,
bi gizonai gañetik
eraindakoak.

Emakumeak jartzen
badira nagusi,



ez gintezke iñola
soseguz bizi;
ezkerrak diradela
pelotari gitxi,
eta ezin litezke
askora iritxi,
ori da lenbizi
nuena ikusi,
gizon bi zituena
lotsaturik utzi,
koroï bat urrezkoa
luke merezi.

Norbaiteri kendurik
soñetikan galtzak,
emango ote dizkiyot
nik berarentzat?
otsoa lotsatzen du
gizonaren antzak,
baita ere domatu
txit ederki artzak,
argatikan galtzak,
emakumeentzat,
konbeni izan arren
bada norbaitentzat,
Paradisoko fruta
gogoratzen zat...

Gaizki baldin badatoz
zenbaitentzat galtzak,
jantzitzea daukate
gona gorontzak;
arturikan linayak
amuko ardatzak,
irutea daukate
famiariarentzat,
lan ori kaltetzat,
badute berentzat,

beste bat obegoa
badala deritzat,
moxorkat betetzea
eulearentzat.

Ibayak badirade
eder ta aundiyak,
bañan itxasoentzat
dira guziyak;
mundua bustitzen du
zeruko euriyak,
baita ere berotu
berriz eguzkiyak;
milagro berriyak
gaude ikusiyak,
txepetx batek benzutzen
errez gabirayak,
zer gloriyak dituben
Euskal-euriyak...

* Ikusi: Aita Agirretxe'k Errexillen arkitu ta bialitako bertso-papera.

«Bertsolariya», 8, 1931, Errenteri'n Makazaga'renean.
Onen aldaketak: 2/10: badaukate eguak; 2/13: bi gizoni gañetik; 3/3: ez gñazke iñola; 3/11: bi gizon zitubenak.



AZPEITIAR BATI

Tolosan bizi zan Azpeitiar bat San Juanengatik gaizki esaka asi omen zan, San Inazio goratzeagatik. Ordun Ramos'ek jarri zizkan bertso auek, San Inazioren martxaren doñuan.

Azpeiti,
 ikusten zaitut gaizki,
 mutil koxkor ta guzi,
 itxusi,
 gustiz dezu merezi,
 frenuak jartzia
 eta ezitzia,
 zergatik zabiltzan
 txit arro Tolosan,
 paltatzen,
 ez al dezu pensatzen
 nazula ni berotzen?
 Inñigoren pamak
 aita eta amak
 esaten diote
 kantatzeko danak,
 dalako Euskalen
 aita dontsua,
 santua;
 mutillak kalean,
 kantari astean,
 jaun au erotuta
 dabil geyenean,
 mutikuak korri,
 onek berriz segi,
 dabil farragarri,
 legoi bat diruri
 burlaka San Juani
 gure patroyari,
 bizkarra ausiko diyot
 azkar berari,

ez fiyatu geyegi,
 geyegi.

Aizazu,
 baldin lotsik badezu,
 konsideratu zazu
 ta esan,
 zergatikan zabiltzan,
 orrela kaletan,
 aspaldi onetan,
 ojuka, marruka,
 erdi berdoztuta,
 puztuta,
 nor zeraden aztuta,
 begiyak gorrituta,
 kopeta illunduta,
 parola puztuta,
 bazabilz larruan
 ezin kabituta,
 bi santurekin
 txit asarretuta
 a xapo!
 mutillak aurretik
 eta zu atzetik,
 zulatzen zaituzte
 lau alderditatik,
 etzera lotsatzen,
 itxusi ibiltzen,
 palso txurizdutzen
 nazula berotzen,
 asitzeko jotzen,
 bizkarra puskatzen,
 familiaren gatik
 dizut nik utzitzen,
 zutzaz ez naiz kupitzen,
 ez, ez, ez.



* Ikusi: Jose Ariztimuño. zanaren bertso-bilduma, Donostin.

Lenengo bertsoa: Tolosako Fakundo Adurriaga «Besamotza» zanaren bertso-mordoan:

7: umiltzea

9: fanfarroi Tolosan

13: Inazioaren kanta

15: erakusten dizkate

17: izandu zalako

seme prestua

20: kanta oyekek aitzean

jaun orrek kalean

asarre ikusten

det nik geyenean;

mutillari segi,

oyek berriz korri.

SAN INAZIORI BERE MARTXA EDO JOAIRA EDERREAN AZPEITTIYARI DONKITUA

1.900'garren urteko Agostuan, Bilbaon, Teatro Arriaga deritzayonean, itz-neurtuen sari emateko jai-aldi bat izan zan. Unamuno deitu zuten itzaldia egiteko.

Agertokian jai-aldiaren erregiña, ta bere damatxoak. Bilbaoko aundiki guztiak an zeuden. Unamuno agertu ta asi zan itzegiten. Ez. ordea, jendeak uste zuana esaten.

Lendabizi, euskerarengatik gaizki esaka, urrena Trueba'ren eta gure literaturaren kontra, gero «make-tua» goratu ta euskalduna beratu...

Jende dana amorratu ta sekulakoa gertatu omen zan: oju, deadar, txistu, jendea agertakira igo ta guzi.

Unamuno'ren itzaldiaren sona Euskalerrri guzira zabaldu zan. Bazter guzietan jendea samindu. Ordun Pedro, Maria Otaño'k bertso batzuk ipiñi zizkan, *Maisubari* deitzen diranak, Jose Echezarreta'k *Unamuno'ri* deitzen diranak, ta Ramos Azkarate'k urrengo bertso auek, San Inazioaren martxan:

Inazio,
jarri zaite begira
zure Euskalerrira
zerutik
euskal leyatillatik,
gaitzazun ikusi,
nola geran bizi,
gaitzazuben gorde
erdaldundu gabe,
prest gaude
Ama zarraren alde,
naiz bizirikan erre.
Euskal txar Tancredo
(edo Unamuno)
mundu onetako



infernuan dago,
 agerturik euskeraren borrero
 biziro,
 ez lotsatuzia
 onra salduzia
 aman eriyotza
 aurrak eskatzia,
 nai du erdaltzia,
 euskera galtzia,
 gu gerran jartzia,
 zikin bizitzia,
 moro biurtzia
 ta Judastutzia
 euskal guzi guziyok
 madarikatzia
 eta kondenatzia,
 bai, bai, bai.

Argatik
 zure jayotz erriyan,
 Itzerraiz'ko mendian,
 diyogu
 juramentu azpiyan,
 gerala euskalak
 euskaldun kabalak,
 ibero zar zarrak,
 ibar menditarrak,
 gerala
 amarentzat leyalak,
 onra zale zabalak;
 gera fedetsuak,
 gera indartsuak,
 gera paketsuak,
 gera onraduak,
 bañan utzi ezkeroztik pakian
 lenian;
 gu gañerakuan
 oraindañokuan
 zer izandu geran,

daukagu goguan;
 Iñigo maitia!
 obe da iltzia,
 ez onra saltzia,
 ez erdalduntzia,
 ez traidoretzia,
 Unamunotzia,
 ez madarikatuta
 kondenatutzia,
 arren jetxi zaitia,
 zaitia.

* Ikusi: Jose Ariztimuño zanaren bertso bilduma, Donostian.

Tolosako Saturnino Amiano jaunak lenengo bertsoa eman zidan. Aldaketa auek ditu: 24: guziyok galtzia; 25, ta 27: (ezin izan zun bi auek gogoratu); 28: Unamunotzia.



GURE GIZONAK

O EGIPUTZUA GLORIOSOA!

Adierazi nai nituzke nik
 Egiputzuaren gloriak,
 kanta ditza.ten Euskalerriko
 neronen adiskidiak;
 danai bezela arkitzen zaizkit
 neri're eskubidiak,
 eskribatzeko etgaz batekin
 gure on zoragarriak.

Gure asabak nolakuak ziran
 Silioren kanta diote,
 berarengatik ainbeste erregek
 izandu giñuzten maite;
 ereje askok izan nai zuten
 gure menditan alkate,
 izu gogorak beti emanda
 libreak gera gaur arte.

Gure asabak beti arraiskatzen
 beren ondasun da bizik,
 orregantikan etzaigu aztu
 Tubalen aubeko itzik;
 Egiputzuaren arma ederrari
 eztago beiratu baizik,
 Nafarru ortan supita aundiz
 dira oyek irabazik.

Jesus maitea baño lendandik
 Ernion eta Erroman,
 ia zer gloriak izan giñuzen
 orduko ere guregan;
 Egiputzuarrak sartu're ziran
 guztiz ausariz Granada'n,
 gañera iritxi lendabiziko
 Colon jaunakin Habana'n.



Ai zer gloria Noain'en eta
baita Beotibar'ian,
ta zer ederra Italia'ko
deritzayona Pavia'n;
Joanes de Urbietak Frantziko errege
arrapatu zun jaitian,
o zer semea batayatu zan
Ernaniako pontian.

San Marziel'ko mendi orretan
gogorra izan zan jaitia,
gure asabak ondatu zuten
Alemaniako jentia;
Roncesvalles'en Rondal da askori
ain jipoi izugarria,
Navas de Tolosa'n omenatu zan
betiko Euskalerria.

Ondarrabiko inguruetan
Frantzi ortako jendeak,
aldi askotan menderatu nai
zitun emengo semeak;
nunai bezela isten zizkaten
giltza gogorrez atearik,
ezta zer esan, beti izan ziran
gudari garailareak.

Emenguakin Bizkaiko batzuk
Canarias'era juanik,
Lanzarote'an legorrera isten
ziran ausariz beterik;
jaitean asi il edo bizi,
bi erregeak arturik,
Españiara ekarri zituzten
beren ontziyan sarturik.

Itxasoz ere izandu dira
emen gizon aguroak,

Okendo jauna eta Txurruka
berdiñikan gabekoak;
Elkano, Lezo eta Bidazabal
supitaz betetakoak,
zazpi doayak orientzat zitun
Aita zeruetakoak.

Gure asabak ixuri zuten
eferengatik odola,
argatik aztu ezin gintezke
glori oietzaz inñola;
oroitu gaiten negar egiñaz
onkaitua duten bezela,
euskaldunaren izen ederra
ziabestuko da bestela.

* Aita J. I. Arana zanaren bertso bilduma, Loyolan.
Tolosako Timoteo Adurriaga zanaren eskuz idatzita-
ko mordoan.

10/2: Ez dakigu zer esan nai dun, bañan *eferengatik*
dio ta ala utzi degu.



GIPUZKOAK IZAN DITUN SEMERIK ONENAK

Gipuzkoak izan ditun
semerik onenak,
esatera guaz gu
nombreak ta izenak;
aditu zazute ondo
ez dakizutenak,
danok idukitzeko
oyen oroipenak.

Manuel Larramendi,
Juan de Urbietta,
Franzisko de Aizkibel,
Andres de Urdaneta,
Valentín de Olano,
Joakin Barroeta,
biyotzaren erdian
dauzkagu gordeta.

Damian de Churruca,
Antonio de Oquendo,
Miguel de Vidazabal,
Juan de Lazcano,
Conde Peñafiorida,
Blas de Lezo,
oyen frutuk gera ta
nai diotegu asko.

Juan de Idiaquez,
Gonzalez de Andía,
Esterban de Garibay,
Bachiller Zaldivia,
Juan de Echaide, Gil
Lopez de Larrea,
oyetzaz egundaño
aztuko ez gera.

Ignacio de Loyola,
Miguel de Legazpi,
Alberto Perez de Regil,
Lope de Isasti,
Gipuzkoako armak
eder daude noski,
zergatikan Belate'n
ziran irabazi.

Orra zein ziran onak
guk adierazi,
goguan eukitzia
txit dute merezi,
orien istoriyak
ez ditzagun antzi,
baizik ondorengoai
beti erakutsi.

* Tolosako Fakundo adurriaga «Besamotza» zanaren
eskuz idatzitako bertso-mordoan.



SAN INAZIORI 1886'GARREN URTEKO ERROMERIYAN

[a]

O gure Aita San Inazio,
o zer soldadu aundiya,
o koitaduen salbatzallea,
o santu miragarriya;
o koleraren itzal ederra,
o arbol maitagarriya,
o zer garbiro zenuben gorde
onrazko euskal-erriya.

Egun batean esan nizuben
«Azpeitiaren izarra»,
¿ote nenguan burutik ongi?
¿edo zer nuben bestela?
¿ez al nekiyen izarrak baña
gorago igo ziñala?
¿ez ote dakit Jaungoikoaren
omen goyena zerala?

Arren ta arren barka dirazu
uts-egin ura mesedez,
zerengatikan ez ninduben ni
zeruak jantzi doayez;
eta bestetik ezereza naiz
itzak neurritzen indarrez,
bañan dizutan amodiyuak
beterik nauka balorez.

Esaten dute etsi batzuek
San Inazio il zala,
Jaunak gizonen fede gaiztoak,
arren, onera ditzala;

¿ildako batek nolatan jarri
bere lurrean itzala,
gure patroyak kolerarekin
egin ziguben bezela?

¿Ez al genduben, eta ez al degu
ikusten bizi bizirik,
jende talderi izugarriyak
Izarraitzera bildurik?
ez da, ez, jayo Luzifertarrik,
¿jayoko al da besterik
Inaziori bizi santua
galdu-aziko diyonik?

Naiz European, naiz Afriketan,
orobat berriz Asian,
ikusten daude il eziñikan
balore aundiyenian;
len bezela gaur arkitutzen da
bizirik mundu guztian,
zenbat anima zeruratuaz
lanikan gogorrenian.

Eragozpenak purrukatuaz
badator beti aurrera,
esanaz guri: naiz Inazio,
antziñakoa berbera,
nator euskaldun errietatik
biralitzera kolera,
esan ta egin, orra zabaldu
osasanaren bandera.

Baldin merezi bagenduen guk
¿zerengatikan utzi ez?
¿edo kupitu ote ziñaden
geundelakoan oñazez?
ai, egiya da guraso bage
bizi gerala negarrez,
otso gosiak ase eziñik
ume zortzaren odolez.



Zer gozoa da ume gaxoaz
Santu bat kupitzea,
zer atsegiña iltzen ez dana
Loyolan idukitzea ;
¿zer milagro da guk Inazio
benetan adoratzea,
ta al deguben moduarekin
koroyez apaindutea.

Bein batez entzun izandu niyon
abade gazte bateri,
euskal umantak zein da nor ziran
txit ondo dakiyenari:
euskaldunikan euskaldunena
esaten Inaziori,
etzuen esan gezurrik baña
ez eta ere geyegi.

Bai, egiya da Aitor aundiyak
badituela umantak,
nola itxasoz ala legorrez
mendiyak bezin galantak;
bañan guziyak estaltzen ditu
Inazioren kopetak,
nola mundua tapa lezaken
egunen batez kometak.

Erroman Leon amairugarren
daukagun Aita Santua,
San Inazio bedeinkatutzen
ari da ziñez poztua;
ondo merezi duena da ta
portatutzen da justua,
naiz jarri arren etsai gaiztoa
ernegatzen ta sutua.

Eta guk berriz Aita aundi au
nola gentzake pagatu?

dizkigulako nola etsayak
ala kolera garaitu?
eskerrak eman, ondo lagundu
eta gañera kantatu
nai degubela bere fedean
geren bizitza jarraitu.

Negar egiñaz altxa dizkagun
geren begiyak zerura,
erregututa begira dezan
euskaldun erri santura,
arren ta arren kendu deigula
geren barrengo tristura,
etsai gaiztoak biyotzeraño
sartu ziguben ar ura.

[a] Garai artan kolera izandu zan. Jende asko il zan. Probintzi-mugetan sendagilleak egoten ziran kutsatutako jenderik sartzen ez uzteko. Izurritea alde egin zunean, Loyola eta beste toki askotara jendetza aundiak etorri ziran eskerrak ematen.



JUAN SEBASTIAN DE ELKANO

Getariako seme leyal bat
beñere ez dedin aztu,
Tolosa ontako gazte jendiak
nai genduke txit onratu;
¿Delkano zanak eindako lanak
zenek aik danak kantatu?
onen istoria irakurri ta
guztiok zoratu gaitu.

Juan Sebastian de Elkano,
au izan zan pilotua,
eguzkiaren azpi guzian
berdiñikan gabekua,
itxasoetan onek izan zun
biotza korajesua,
barku batian aurren aurrena
jiratu zuan mundua.

Milla bosteun da emeretzitik
oi ta bira bitartian,
sosegu gabe au ibilli zan
itxasoaren gañian,
isla berriak topatu nayan
Españiyaren onian,
bere biziya arraiskatuaz
salbajiaren artian.

Norteko izarra artian illun,
bide batzuek itxiyak,
jakinduriaz iriki zitun
arkitu ziran guziyak,
baita billatu mundu berrian
isla ondasungarriyak,
zeruko Aitak oni eman zizkan
beretzat zazpi doayak.

Goyan zerua, beyetan ura,
etsai gaiztoak nunaitik,
barkua berriz urez betetzen
ari zitzayon zulotik,
turmoi, tximistak, aize gaiztoa,
alderdi guztietatik,
bere lagunak erdiyak iltzen
zitzazkiola sustotik.

Bizi ziranak bere onduan
guztiz ziraden bildurtu,
kontrariyuaren eskuetan
nai zutela gelditu,
Delkano zanak onelako itzik
etzun nai izan aditu,
bere balorez koitadu ayek
guziak zitun salbatu.

Izan zalako gau eta egun
Delkano animosua,
Victoria'kin onek ein ziyon
munduari jira osua,
iru urtean pasatu zitun
amalau milla legua,
pozak zoratzen sartu ziraden
Barrameda'ko portua.

Beren promesa kunplitutzera
juan ziran koitaduak,
erdiyak eta geyago zeuden
osasunatik galduak,
bestetik berriz beren gorputzak
iya larru gorrituak,
jendea berriz airi begira
ezin sekatz malkuak.

Toki guztietan zabaldu izan zan
Juan Sebastian'en izena,



nungua ote zan mundu guzia
jiratu zuena aurrena,
ala biarrak ala gertatu
egiazko euskalduna,
erderaz ezin ikasi eta
euskara maitatzen zuna.

Karlos bosgarren Espāniako
orduko enperadoreak,
merezi bezela etzizkan eman
oni bere onoreak,
pensatu gabe nolatan pasa
zituen iru urteak,
jende guztiya arritzen zuan
onek ein zun biajeak.

Mundu guziya lendabiziko
onek zubela jiratu,
izen orrekin zizkaten oni
neke guziyak pagatu,
bosteun dukat urteko agindu,
batere ezin zun kobratu,
beste biagian gizarajua
eriotzan zan gertatu.

Glori aundi bat izandu zuen
gure probintzi maiteak,
orrelako lan bat ondo eitea
emen bertako semeak,
famatzen dute mundu ontako
Jayota dauden jendeak,
nola ez gera gu oroituko
pasagatikan urteak?

* Tolosako Fakundo Arrudiaga «Besamotza» zana-
ren eskuz idatzitako bilduma-mordoan

AITA JULIAN LIZARDIKOAREN BIZITZA ETA HERIOTZA

AITA JULIAN LIZARDI

Aita Julian Lizardi, Asteasu'ko Uruzuriaga'n jayo (29-11-1695) ta 17 urtekin jesuita sartu Villagarcía de Campos'en (4-6-1713). Paraguay'ko Chiriguay'ko indioen tartera joan zan misiolari.

An, Concepcion zeritzaion errian meza ematen ari zala (16-5-1735) Ingre zeritzaion alderdiko indio basatiak etorri ta preso eraman zuten. Urrango egunean il zuten.

Arkitu zutenean amar fletxa zitun bere gorputzean josita, oin batean bere zapata ta guzi, ta bestean iru beatza falta. Arpegian ere ezur bat falta. Egaztiak eta basoko piztiak bere lana egiten asiak ziran.

Gorputza artu ta Tarija'ra eraman zuten. Jende asko bildu zan martiriari agur egitera. Ango jesuiten elizan eman zioten lurra.

Gero, Karlos irugarrenak jesuitak bota ta, erri artan jesuitarik ez ta, jendea aztu egin zan erliki ura an zegoanik ere.

1900'garrenean ingles batek, Vaughan'ek, berria eman zun gorputza an zegoala. Asteasuko erria bereala asi zan ingles onekin izketan. Berak etzula naiko dirua bilduko ta Probintziari laguntza eskatu zion gorputza ekartzeko. Bai lagundu ere. Vaughan onek gorputza Tarija'tik Buenos Aires'era, ta emendik Barcelona'ra itxasoz. Emen idiki ta oraindik ere oña bere zapata ta guzi. Asteasu'ra 1902'garren urteko Mayatzaren 25'ian.

Gipuzkoako Probentzi eder,
leñargi eta leyalak,
Tubal aundiyak erritu zuen
Kantabriako izarrak,
Probentzi zintzo, Probentzi gozo,
Jaungoiko zale zar zarrak,
kantatutzen du: «Ni onratzen nau
Lizardi... baserritarrak!»



¿Nola ez gera bada egingo
 Probentziyakin batera,
 baldin amaren sabeletikan
 onra zaleak bagera?
 argatik gera pozez etorri
 Lizardi onratutzera,
 bere bizitza ta eriotza
 euskeraz kantatutzera.

Milla sei eun larogei eta
 amabostgarren urtian,
 odol garbiko aingeru on au
 jayo zan zorionian;
 Azaro illa izena duen
 ogei ta bederatzian,
 Asteasuko Urzuriaga
 deritzan mendi-etxian.

Baserri onen aurrean dagon
 gaztan arbolan barrenen,
 umea zala oraziyuak
 antxen egin oi zituben;
 Jaungoikoaren Probidentziyak
 orduan eta ondoren
 gure Santua bein bakarrikan
 desanparatu etzuben.

Lazaro eta Ana Mariya
 ziran senar-emazteak,
 Asteasuko Eguzkiyaren
 guraso maite maiteak;
 santuak izan etziralarik
 ziran Gurutze zaleak,
 gure Jaungoiko egiazkoan
 ziñezko adiskideak.

Aita Julian gazte gazterik
 sartu zan jesuitetan,

Santiago'ko kolejiotik
 Cadiz'ko urira joan zan;
 eta andikan ontziratuta
 Paraguay'ra uretan,
 ta arkitzen zan Uzta-illean
 Buenos Aires'ko lurretan.

Lertu nayan zebiltzala bein
 itxasoko ur gaziya,
 milagro batez pake gozoan
 jarri zituen guziyak,
 zer ondo zeukan bere Jaunakin
 gure Aita maitatiyak,
 Gipuzkoako baserriarren
 izar adoragarriyak!

Buenos Aires'tik joan zan Cordoba
 deitzen diyoten artara,
 Inazioren seme argiyak
 zeukaten kolejiyora;
 emen alanbrez zeatzen zuben
 gogorki bere burua,
 egiteraño bizkar gañean
 odol garbiko putzua.

Mezaz ordendu zan egunetik
 zan askoz santuagua,
 berak aunditu zuelakoan
 beretzat martiriyua;
 Buenos Aires'en egon berriz ta
 Cordoba'raño dijua,
 ekaitz gaizto bat deseginikan
 egiñaz oraziyua.

Cordoba'tikan Alta Lizardi
 Loreto'ra badijua
 zabalduzera Jesukristoren
 Ebanjeliyo santua;
 an ere ondo ikusi zuten
 euskal misionerua,



zala doayez eta birtutez
mallarik goyenekua.

Andikan Buenos Aires'eraño
birali zuten Ministro,
an buruzari zegoalarikan
etzan bizitu eroso;
baizik Indiyo asko ikusi
zituénian ain gaxo,
karidadeko lanari ziyon
arretarekin eraso.

Paraguay'ra zuten biraldu
misiyuakin berriro,
txalupa batez berreun legua
urez zituben igaro;
joanera ontan Aita Julian
urperatu zan osoro,
bañan salbatu ta lau urtean
zan egon misionero.

Milla zazpi eun ogei ta amar-
garren urtea zanian,
jarri zan santu argidotarra
gradurikan goyenian ;
Chiriguaytar biyotz gogorak
jariyaz bide onian,
ipiñi zuten Concepciyoko
misiyuaren aurrian.

Zazpi eun ta ogei ta amalau-
garrenge urtea zala,
santu aundiyak an egin zuen
konfesiyo generala;
batayatu zan eran bezela
zalarikan zerutarra,
martir bizi ta martir iltzia
zan bere griña bakarra.

Zazpi eun ta ogei ta amabost-
garrenge urte artantxen,
ta Mayatzaren amazazpiyan
ari zan meza ematen;
meza bukatu bañon lenago
etsyak eldu ziyoten,
ta fletxazoka Asteasuren
onra goyena il zuten.

Bere gorputza ogei eta bi-
garreneko egunian,
zegoan bada purrukaturik
mendi baten malkarrian;
ta Tarija'ra eramanikan
an sartu zuten lurpian,
Inazioren semeen eliz
dontsuaren barrenian.

Bañan bizi da Zeruan eta
batayatu zan Pontian,
inguruetan arkitzen ez dan
elizik ederrenian,
da bizi gaztelaniyan eta
Colon'en mundu berrian,
ta biziko da, mundua mundu,
Tubal'en Euskal-errian.

Kaja iriki diotenian
arki dizkiye gauza bi,
oin batean ta zanko berean
zaizkiyonak gaur agiri
galtzerdiya ta bere zapata
osorik ditu ekarri,
ta galdetzen det: ¿onek milagro
aundi bat ez al dirudi?

¿Nola ta nundik galdu leitezke
bere ezur sagraduak,



baldin ekarri baditu onuntz
gure Diputaziyuak?
¿nork eta zeñek iñoiz desegin
badira milagrosuak,
bere ondoan badauzka orain
San Pedro Gloriosuak?

Beragatikan ¿nola ez altxa
Diputaziyo gurea,
berak Pedroren Elizan santu
badu beraren onrea?
¿nola ez degu alabatuko
Ayuntamentu noblea,
bada izan ta izan nai badu
onraren jarraitzallea?

Asteasuko Ayuntamentu
argidotar onradua,
da izan bere eguzkiyantzat
begiratzalle justua;
onek mugitu zuelakoan
Diputaziyo Goitua,
gaude onratzen pozaz negarrez
Lizardi santu santua.

Eta izanik Aita Lizardi
Gipuzkoaren Gloria,
era berean Aita Iñigo
onratzen duen semia,
eta nola dan martiriyoko
koroï santuen jabia,
¿nola ez degu guk eskatuko
santuan santidadia?

Asteasuko Bilguman gisan
eska deiyogun bertatik,
Diputaziyo txit goituari
biyotzan erdi erditik,
esan guziyok modu onetan

*Sayatu ¿aite bertatik
Aita Lizardi aldareratu
dedin sakristi barrutik.*

Bigartandikan asiko da bai
Diputaziyo maitia,
Aita Santuak kantatu dezan
Lizardiren Donedia;
Diputaziyo goituak egin
badiyo oroïkarria,
berak jarriko du aldarean
santu beneragarria.

Bizi dedilla Aita Lizardi
eta Diputaziyua,
dedilla bizi Asteasu ta
bere Ayuntamentua;
guziyen gairdik dedilla bizi
Jesus Gurutziltzatua,
dedilla bizi Euskal-enriyen
lege zar bedeinkatua.

Diyogularik guk Lizardiri
maitetasun bat sendua,
arren ta arren artu deiyogun
gaurtandik sendoagua;
ta egin beti, beti ta beti
euskeraz oraziyua,
eta etzaigu iñoiz faltako
Zeruko bendiziyua.

1902-ko Mayatzaren 25-ean

* Tolosan: F. Muguerzaren moldiztegia
(Tolosa'ko Manuel Urreta jauna zanak bidalitako
kanta-papera)



ANIMAK BIDERATZEN

TOLOSAKO MISIYO SANTUAREN OROIPENA 1886 URTEAN

Aurtengo garizuma
Tolosa ederrean
uste det izan dala
gure mesedean,
beñepen senti degu
orain barrunean
alako atsegin bat
zori txit onean,
arkitzen geralako
bide zuzenean.

Misiyoak kantatu
diguten fedea.
gauza guziyak baño
askoz da obea.
zar dalarik berriya,
ona ta noblea,
mundu zabal guzian
berdiñik gabea,
euskal erri maiteen
lenengo bidea.

Aita San Franziskoren
semetxo umillak
misiyo santurako
dirade abillak,
animak bideratzen
trebe ta argiyak,
ongi piztu dituzte
gure biyotz illak,
zer gozoak diraden
oyen marabillak.



Habitu argal ori
soñean jantzita,
dabilz munduko gauzak
alde bat utzita,
bide au gaztetandik
ondo ikasita,
erriyeta dute
egiten bisita,
Franziskoren lanari
eder iritzita.

Lore oriye jayo
diraden baratzak,
nai eta nai ez, izan
bear aberatsak,
idurituagatik
zerbaitian latzak,
progratu dituanak
oriyen biyotzak,
sendakiñik onentzat
dauzka animentzat.

Len izan ginduela
dira zazpi urte,
ordukoxe dotriña
erakutsi dute,
mundu berrikoai
esango niyeke
oyek ez dabilzala
turroyaren truke,
baizik ondo nekatzen
iltzen diran arte.

Urrutira jua gabe
ditugu ikusten
erreino ontan ere
personak aldatzen,
egia azturikan
gezurra laztantzen,

Eliz ama utzita
urgulloz arrotzen,
aize apur batekin
buruak txoratzten.

Bañan inortxo ez da
oraindikan jayo,
ez eta, nere ustez,
aurrera jayoko,
Euskalerra zintzoa
duenik galduko,
sayatuagatikan
paper falso asko,
lenago zero goyak
dira eroriko.

Goizeko bostetako
Aita Beobide
sermoi santu denetan
agertu da trebe,
esnaratuak ditu
makiña bat jende,
neskatxa eta mutil,
senar eta andre,
lanera biralduaz
ez ikutu gabe.

Arratsaldea berriz
Maiz eta Baertel,
etziraden jaun oyek
beti lo egoten,
konseju ona franko
eman zizkiguten,
euskera ain gozoa
itzegiten zuten,
negar-malkorik asko
atera ziguten.



Aita Gereka'k berriz
 gauero gauero
 fedean otz ziranak
 jarri ditu bero,
 gauza bat entzun niyon,
 uraxen bai klaro,
 blasfemiyen gañean
 jo zuen ordago,
 Jaungoikoa fueroak
 gurekin al dago.

Egunaz euskeraz da
 gañean erderan,
 zenbat atsegintasun
 dizkiguten eman,
 egon gabetanikan
 alperrikan dudan,
 jarri eta pensatu
 ondo nor beregan,
 egin diguten gerra
 gaiztoa ote dan.

Gerra egin diyote
 oitura txarrari,
 gerra blasfemi zatar
 erderazkoari,
 gerra aragiyazko
 pekatu loyari,
 gerra jayeko lana
 dabilkiyanari,
 bañan bere neurriyan
 kulpa duenari.

Ni eme ikutzen nau
 oyetako batek,
 bañan biyotzak diyo
 kulpa zergatik det,
 pensatu ondo esan:
 arrazoya ditek,

garbi garbi kantatzen
 ederki zekitek,
 obeak izatea
 mesede giñikek.

Amar egun santutan
 oriyen nekeak
 pagatuko al ditu
 Jaungoiko gureak,
 artzayak bezelaxen
 beren artaldeak
 konfesatu dituzte
 millaka jendeak,
 Aita San Franziskoren
 seme ongilleak.

Gereka, Beobide,
 Maiz eta Baertel,
 dizkiyotegu ezker
 guziyak ematen,
 Tolosan oroipena
 utzi dute aurten,
 badakigu geyegi
 zer merezi duten,
 denborak esango du
 gero zer daukaten.

* Tolosako Timoteo Adurriaga zanaren eskuz idatzi-
 tako bertso-mordoan



DONE FRANTZISKOREN AITA BAERTEL'I

Bedeinkatua izan dedilla
San Franziskoren semea,
Aita Daniel Baertel deritzan
guzizko euskal zalea,
euskaldun erri miñ erituen
benazko maitatzallea,
da euskararen lege santuan
goi goiko onratzalea.

Da Mesiasen apostolu bat
inoiz nekatzen ez dana,
da bere aita Asiskoaren
txit egiazko laztana,
da gure ibar eta mendiyai
atsegin asko emana,
dagoalako euskal kondairan
guztiz gozoro etzana.

Dalarikan, bai, argi argiya,
da errurikan gabea,
badakiyena berdin artutzen
aberatsa ta pobrea,
dakiyelako itz aldiyetan
gozatzen aditzallea,
da LuZiferren banderakoen
ekarri-azitzallea.

Da politikan tranparik gabe
onraren jarraitzalea,
gorrotatutzen duela beti
ziarkakoen bidea,
da Mac Kinley [a] ta español txarren
lur-azpiratutzallea,
da erriyaren aldeko jende
garbiyen berotzalea.

Euskeraz dabil Naparruan da
bai ere Egiputzuan,
dabil euskeraz Araban eta
bere Bizkaya gozuan,
euskeraz beti bizitu dedin
eleizan eta kanpuan
Jaungoikoa ta euskera dauzka
gozatzen bere kolkuan.

Au eramango baliguteke
bigar Constantinopla'ra,
edo besuak katez lotuta
Japon'era ta China'ra.
Loinaz'en gisan gurutzeturik
naiz au eraman plazara,
il bañan lendik esango luke:
Jauna, salbatu euskara.

Beste geyago euskeran alde
nekatzen diralarikan,
euskaragatik osasuna ta
galdutzen dutelarikan,
ez det nik uste esan detala
aurretik geyegirikan,
Aita Baertel'ek Amarengatik
egingo ez lukenikan.

Ez al genuben lengo igande
arratsaldean ikusi,
euskal erriyen edertasunak
kantatzen nola zan asi?
ez al zizkigun Ama zarraren
birtuteak erakutsi,
Amangandikan euskaldun batek
ez dezan egin igesi?

Zer mirari da guk gure Ama
benetan maitatuzia,



euskera galdu ezkeroztandik
 badator gure iltzia,
 ez al da bada Aita Baerteli
 obea jarraitutzia,
 eta inñude biantar ori
 ez emen gizendutzia?

Deitu dezagun Baartelekin bat:
 bizi dedilla euskera,
 deitu zaguben latsatu gabe:
 bere semeak gu gera,
 nai ez duenak bada indartu
 euskal izkuntzan bandera,
 balijoake ber-bertatikan
 Sampson'en [b] aldamenera.¹

Euskeragatik Erromatarrak
 ginduzen guk burrukatu,
 euskeragatik godoak emen
 etziran beñere sartu,
 euskeragatik arabetarrak
 ziraden lur-azpiratu,
 euskalak armaz inñoiz mendian
 inñortxok artu ez gaitu.

Argatik ez du Ama euskerak
 inñudearen antzikan,
 zarra, garbiya eta zintzoa
 izendatzen dalarikan,
 munduan ez du bada inñortxok
 onra aundiyagorikan,
 euskeran alde kantatutzeko
 ez degu bear lotsikan.

* Tolosako Timoteo Arrudiaga zanaren eskuz idatzitako bertso mordoan.

[a] Mac Kinley Guillermo (1844-1901), Estados Unidos'etako burua zan, ayek eta España gerrian aritu ziranean, eta España Cuba eta bere azkeneko ugarteak galdu zituan. Beraz, Ramos'en denboran. Bi tiroz garbitu zuten.

[b] Sampson Guillermo Tomas (1840-1902), Estados Unidos'etako *almirante* zan, ayen ta españolen arteko gerra denboran.



JESUSEN LAGUNDIKO AITA JOSE MARI LASKIBAR'KOARI

Atoz pekatariaren doñuan

Jesusen Lagundiko
Aita Jose Mari,
zenbat atsegin eman
dizkiguzun guri!

Betor, betor, Satanas,
bai ere Luzifer,
betoz Judas ta Kaifai
betoz milla bider;
betoz suak arturik
Tolosara aurten,
ia Aita Laskibar
izutzen al duten.

Jesusen Lagundiko...

Datorrela Morayta
eta Victor Hugo,
betoz Mahomatarrak,
masoyak nayago;
etorriyatikan
Jordan ta Lutero,
ez diye Laskibarrek
itzuli egingo.

Jesusen Lagundiko...

Alako arbolaren
adarra zerade,
etsayengatik inoiz
etzerana gorde;
naiz il, beti zabilta
egiyaren alde,
zer gudariya zauden
ezpatarik gabe!

Jesusen Lagundiko...

Armikan ez du bañan
bai jakinduriya,
da bere erriyaren
illargi berriya;
Euskalerriko seme
maixu txit argiya,
oso oinperatu du
liberalkeriya.

Jesusen Lagundiko...

Masoi liberalakin
dago txit aserre,
eta ez da izango
inoiz adiskide;
¿Laskibar zeñek jarri
pekatuen alde,
baldin nayago badu
bizirikan erre?

Jesusen Lagundiko...

O zer seme umanta
dadukan Tolosak,
martiri izatia
dauka atsegintzat;
nola bereganatzen
dakiyen biyotzak,
esanaz itz-tokitik
Jaungoikozko itzak!

Jesusen Lagundiko...

Deadar biyotzetik
egiten ziguben,
paper falso oriek
ez letzeko, arren,
arritzen da Euskalak
lotan nola gauden,
ezin ikasirikan
nork iltzen gaituben.



Jesusen Lagundiko...

Adierazi digu
garizuma ontan
zer etsayak dauzkagun
bazter guztietan;
gu miñez ikusteaz
ain dago penetan,
iltzeko prestatu zan
itz-tokiyan bertan.

Jesusen Lagundiko...

Gu salbatzeagatik
ilko ziñakela,
aingeruak zerutik
gorde zaitzatela!
dakigu biyotzetik
nai diguzubela,
baita guk ere zuri
bestek ez bezela.

Jesusen Lagundiko...

Ogei urte oyetan
ikusi ez arren,
Aita Jose Mariak
zer maite gaituben!
o zer guraso ona
andien ondoren
gaur Tolosa guziyak
koroitzen zaituben.

Jesusen Lagundiko...

Zu bezela guziyak
fiñak balirake,
euskara ta fedia
ilko ez lirake;
gañera Fueroakin
biziko giñake,
ez gaur gauden bezela
masoi oyen mende.

Jesusen Lagundiko...

Aundiyak diralako
zure mesedeak,
biyotzaren erdiyan
dauzkagu gordeak;
sariatu ditzala
Jaungoiko maiteak,
merezki bezelaxen
zere birtuteak.

Jesusen Lagundiko...

Zere erri maitea
fedez igurtzita,
bazuaz oroitza bat
betiko utzita,
ai egingo bazendu
urtero bisita,
ala bear eder bat
zerutik jetxita.

Jesusen Lagundiko...

Ez gera, ez, aztuko
zutzaz gau eta egun,
zergatikan Aitarik
goyena zaitugun;
zuregatik iltzeko
ez gerade bildur,
agur, Aita Laskibar,
agur, agur, agur.

Jesusen Lagundiko...

* Gregorio Mujika zanaren bertso bilduman,
Donostin.



GURUZ-BIDE EDO KALBARIYUAK

Bertso auk egin zitunean, 1900'an, Ramos Azkarate Erruki-etxean bizi zan. Eduardo Mocoeroa Jaunak doñua ipiñi zien eta urte askotan kantatu oi ziran Kalbariyo auk Erruki-etxeko elizaxoan garizumako igandetan eta ostiraletan. Jende asko joaten omen zan. Liburu ontan agertzen dira Tolosako Maria Monserrat andreak bialitako liburutxo txikian dauden bezela. Bañan Tolosako Manuel Urreta jauna zanak bialdutako bere eskuz idatzitako paperan, itz batzuk aldatuta daude. Garbi asko ikusten da garbizalen batek asmatutako aldaerak dirala, eta ez degu emen jarriko. Asieran, ordea, ba du liburu txikiak ez dun bertsoa eta ura bakarrik ipiñiko degu emen:

ESKENIYA

Zure jayotzaz, zure bizitzaz
 poz atsegiñez beterik,
 bañan Nekaldi ta eriyotzaz
 nola gauden kupiturik,
 goaz gu abesten abiyatzera
 ziñez belaunikaiturik,
 biotza jaso zerura eta
 begiyak malkoz bustirik.

LENBIZIKO GERALDIYA

Jesus iltzeko kondenatua

(Kapillak kantatzen du)

Azotatua, katez lotuta,
 bizitzaren egillea,
 begira nola arkitutzen da
 munduan Salbatzallea;
 ¿zein zerade zu Pilatos beltza?
 ¿zer juez zera ordea,

illazitzeko gurutzetua
 bildotx errurik gabea?

*Aita gurea, Agur Maria eta Gloria,
 Jauna, egin det pekatu, erruki zuite nitzaq.*

(Eta ondoren esango dezu:)

Bedeinkatua eta alabatua izan bedi Jesukristo gure Jaunaren pasio ta eriotza santua.

BIGARREN GERALDIYA

Jesus gurutzarekin kargatua

Gurutzareen pisu aztuna
 sorbaldaratu dizute,
 bañan Erramu egunekua
 zerala ¿ez al dakite?
 zure orduko garait-ondua
 gaur ontzat ez badaukate,
 berak nor diran, Zu nor zeraden,
 osoro aztu zayote.

Aita Gurea ta gañerakoak lenbiziko geraldijan bezela.

IRUGARREN GERALDIYA

Emen erori zan Jesus lenengo aldiz

Nekatu eta argaldurikan
 erori zera lurrean,
 Zerorren malko ta odol-tanto
 errukariyen gañean;
 eta or zaude miñ-eriturik
 zentzu galduen mendean,
 izerdituta, naigabetuta
 eriotzako bidean.

Aita Gurea...



LAUGARREN GERALDIYA

Emen billatzen dute elkar Jesusek eta bere Amak

Zu Amarekin, Ama Zurekin
 ¿zertan arkitu zerate,
 baldin arriyak ere negarrez
 ipiñi badituzute?
 biyok elkarri begiratuaz
 txutikan ezin zaudete,
 naigabeakin jausi baño len,
 arren aparta zaitetzte!

Aita gurea...

BOSTGARREN GERALDIYA

Zirineotarrak laguntzen diyo Jesusi gurutzeta eramaten

Borrero oyek errukirikan
 ez dutelarik Zuretzat,
 il etzaitzen Simon gaur eman
 dizute Zuri laguntzat;
 ¿al da atsegin aundiyagorik
 gizon doatsu onentzat,
 Zuri laguntzen gastatu arren
 kemenak eta indartzak?

Aita gurea...

SEIGARREN GERALDIYA

Beronikak garbitzen dio Jesusi bere arpegiya

O, Beronika, guzizko Santa,
 andre txit errukitsua,

etsayen aurrez garbi zayozu
 Jesusi musu santua,
 zapi orretan agertu dedin
 bere arpegi justua,
 esanaz nola irabaziya
 daukazuben zuk zerua.

Aita gurea...

ZAZPIGARREN GERALDIYA

Emen erori da Jesus bigarren aldiz

Odol ustuta txit auldurikan
 berriz bazera erori,
 ¿nola ez egin oñazeakin
 bati biyotza bi erdi?
 Jesus maitea, zauriz betea,
 apur bat zaite ibilli,
 etsai oriyek Gurutz-mendiyan
 ditzan gaur lotsak estali.

Aita gurea...

ZORTZIGARREN GERALDIYA

Emen itzezin diye Jesusek Jerusalemgo alabai

«Txit benazkuak diralarikan
 zuen oraingo negarrak,
 ez neregatik negarrik egin,
 Jerusalemgo alabak;
 baizik zeon eta semeengatik,
 biyotz nereko izarrak
 negarra egin bear dute, bai,
 zuek bezelako amak».

Aita gurea...



BEDERATZIGARREN GERALDIYA

Emen erori da Jesus irugarren aldiyan

Indar guziyak bukatu, eta,
irugarrengo aldiyan
erori zera gurutzeakin
txit era negargarriyan;
altxa nai eta ezin altxarik
zaude egurran azpiyan,
odol putzua gaur zuk egiten
dezula Gurutz-mendiyan.

Aita gurea...

AMARGARREN GERALDIYA

Emen kendu diozkate bere soñekuak

Odoldutako tunika kendu
ta zaude larru-gorriyan,
zauri txikiyak berriturikan
era txit lotsagarriyan;
eta ozpiña edan azirik
gorroto bizi biziyan,
arkitzen zera guregatikan
lotsaz iltzeko zoriyan.

Aita gurea...

AMAIKAGARREN GERALDIYA

Emen jositzen dute Jesus gurutzean

Zeruko odei urdiñ urdiñak
asi dirade goibeltzen,

bai eta ere mundu guziko
ibar mendiyak tristetzen;
egazti eder kantalarriyak
daude negarrez urtutzen,
ta gu kristauak izanta zñola
ez gera miñez erortzen?

Aita gurea...

AMABIGARREN GERALDIYA

Il da Jesus gurutzean

Il da, bai, il da, guregatikan
Jaungoikoaren Semea,
mundua eta munduko gauzen
egillea ta jabea;
il da, etsayai barkaturikan
itxuen argitzallea,
zori gaiztoan kendutzalle ta
onaren jarritzallea.

Aita gurea...

AMAIRUGARREN GERALDIYA

Emen jetxi dute Jesus gurutzetikan

Ama aundiya, sortzez garbiya,
Ama denetan goyena,
Semea artu magalean ta
miñ-eriturik zaudena;
nola zeraden milla birtute
txit santak dituzubena,
biyotz guretan ezarririkan
daukagu zure izena.

Aita gurea...



AMALAU GARREN GERALDIYA

Emen lurperatzen dute Jesus

Ama maitea, zenbat sufritu
 dezuben mundu onetan,
 Belenetikan abiyatuta
 bukatu arte Golgotan!
 zaudelarikan txit errukarari
 gurutzearen onetan,
 milla arantza badaukazkitzu
 sartuak zure zañetan.

Aita gurea...

**GALTAUNDI
(OARRAK)**

Ikusi: «Reimpreso en Tolosa en la Imp. de E. López». (Gregorio Mujika zanaren bertso-bilduma, Donostian). Au da arkitu degun argitaraldirik zarrena, ortografiari (nuque, secretuac, eguin...), letraren itxurari eta paper zakarrari begiratuta, argi ta garbi ezagun danez. Bañan *reimpreso* dio ta ez da lenengoa izango.

Gañerako bertso paperak ere aurrez atzera jarriko ditugu errenkan, zarrenetatik asita. Artarako, len bezela, ortografiari, letrari ta paperari begiratu diogu.

«Reimpreso en Tolosa en la Imp. de E. López». (Gregorio Mujika zanaren bertso-bilduman, Donostian). Lenaz gañera ta berdin berdiña, beste argitaraldi au dago toki onetantxe).

Beste bat inprentaren izenik gabe. (Tolosako Antonino Lacunza zanaren eskutik jasoa).

«Imp. de Vda. de B. Valverde - Irún» (Elgoibarko Antonio Arrillaga jaunaren eskutik).

«Guernica.-Imp. Artística Goitia y Hormaechea» (Aizarnako Josefa Aizarna'ren eskutik).

«Guernica - Imp. Angel de Goitia» (Ondarroako Jose Maria Etxaburu'ren eskutik).

«Bertsolariya», 3, 1931, Imp. Macazaga, Renteria. (Onek eta onen urrengoak —geyenak beintzat— doñuari dagokion estribillo au dakarte:

*Ta Galtzaundi, ta Galtzaundi,
 apellidua det Goñi,
 ta Galtzaundi, ta Galtzaundi
 apellidua det Goñi.*

Argia, 1932, VII, 10.

Tolosako Estanis Urruzola'ren eskuz idatzitako bertso bilduman.

«Euskalerriko kanta zarrak, I, pág. 71, Imp. Macazaga, Rentería».

«Nere atsegiria, pág. 5o, Librería Múgica, San Sebastián».

Auek danak berdin berdiñak daude alkarrekin. Inprentaren utsegiñak ere alkarri kopiatzen dizkate askotan. Aldaketa auek daude:



6/6, batzuk *ere testiguak*, besteak *nere testiguak*. Urruzolarenak: 4/12, *edari guziak*.

Bañan Tolosako Manuel Urreta zanaren eskuz idatzitako paper batek, desberdin xamar ekartzen ditu gauza asko. Oso paper zarra da, irurogei ta amar bat urte izango du. Bañan, zoritzarrez, atzeneko bi bertsoak falta ditu. Auek dira paper onen aldaketak:

- 1/6: nik asko pensatzen
- 1/9, 10: testamentua egin - nai nuke oraintxen,
- 1/11: nere aide guziyak
- 2/3: O Jaungoikoa lagun dirazu - nerilan onetan

arren,

- 2/6: damaikit barrenen,
- 2/9, 10: neregatikan oyek - ia nola dauden,
- 3/1, 2: Nere laguna Pocofinori - nai nizkiyoke nik

utzi,

- 3/3: eskaratzeko estanteriya
- 3/7, 8: bestela eman, eman - guziya Ramosi,
- 3/11, 12: danak juango zaizka - azkar Rodriguez'i
- 4/2: pozaz ilko balitzake
- 4/4: al baldin balitz nai nuke
- 4/9: poza artu zubela
- 4/10: edari guziyak

1957'ngo urteko Inauterietako, Tolosan beste agiraldi bat atera zuten (Gráficas Izaskun - Tolosa). Ontan ere Urretaren pape-rean dauden aldaketa asko agertzen dira: 2/3 (lagun dirazu - neri lan onetan arren); 2/9, 10; 3/2; 3/3; 3/11, 12; 4/6 (letra txit aundiya), 4,10.

Eta atzeneko bi bertsoetan:

- 5/1,2: Entierrua, ai, nei egin - bigarrengeo klasian,
- 5/4: nai nuke berriz aidian;
- 5/9: Arramel-ko zubiyan
- 6/3: gaur bertatikan gertatu bitez
- 6/5...: ia orain firmatu

emen testiguak,
entzun badituzute
kontu sagraduak,
ondo ta ondo egin
nere aginduak,

ez dezan atsegiñik
izan Juzgaduak.

Badago oraindik beste argitaraldi bat, *Ibaizabal* zeritzayon aldizkarian (273'n gueia, 1902-V-24). Oso osorik jarriko degu emen, bere azpiko abixu ta guzi. Ain da desberdiña:

ZAPATARI BATEN AIZKENAIA EDO TESTAMENTUA

Neri deitutzen ditet Galtzaundi
izengaña det nik Goñi [1]
Aldatxur-txoro izengoitizat
deitzen didate neroni;
iltzerikan ez nuben
iñoiz sinistatzen,
bañan gaitz ontatitan
ez naiz eskapatzen;
testamentu bat eguin
nai nuke oraintxen,
nere aide lasaiak
estutu ditezen.

Ai, ai! Aitaren ta Semearen
Espiritu Santuaren,
Aita San Krispin lagun zadazu
neri lan onetan, arren!
sentimentu aundi bat
badaukat barrenen,
alaba Ipurt-aundia
utzitzea emen;
Jesus! ta Jesus! Jesus!
Jesus! milla bider,
Eraman, bai! Eraman
zerura len-bait-len.

Nere lengusu Pokofinori
nai niozkake nik utzi,



eskaratzeko apaltegia
 larru zolu eta guzi;
 bañan ango kristalik
 ez dezala autsi,
 guziak *Ramosi*, [2]
 austen baditu eman
 oni nai badeizkio
 norbaitek erosi,
 eraman sakuetan
 Don Juan Rodriguesi. [3]

Ni il da laister nere andrea
 pozaz illko balitzake,
 nere ondoan lurperatzea
 al baldin balitz nai nuke;
 eta gañean jarri
 letra txit aundiak,
 esanaz: Emen daude
 senar emaztiak,
 sagardoz eta matzez
 osoro betiak,
 beti burrukan bizi
 ziran bi maitiak.

Entierrua edo illeta
 egin bigarren klasian,
 lau zapatarik eramatea
 nai nuke berriz aidian;
 jota nabarra joaz
 Enpero kalia
 sobrekamak ipiñi
 naramatenian,
 Arramale zubian
 aitzen aitzenian,
 zagi bat ardo jarri
 kajaren gañian.

Nik lenagotik egin izandu
 ditudan testamentuak,

nai nuke bada ber-bertatikan
 izatea borratuak;
 orain firma zazute
 emen testiguak,
 entzun banazkizute
 kontu sagraduak,
 ondo ta ongi egin
 nere aginduak,
 ez dezan mokadurik
 izan juzgaduak.

Tolosan, Maiatz-illaren 12'an

[1] Iruñako Miserikordi edo sasikua

[2] Arkupe zarretako zapataria

[3] Arkupe berrietako zapatero makettoa